

# INGURUMEN KLAUSULAK TXERTATZEARI BURUZKO JARRAIBIDEA

Euskadiko Erosketa eta Kontratazio  
Berdearen Programa 2030





# INGURUMEN KLAUSULAK TXERTATZEARI BURUZKO JARRAIBIDEA

Euskadiko Erosketa eta Kontratazio  
Berdearen Programa 2030



---

**Argitaraldia:**

2023ko martxo

**Edita:**

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila  
Ekonomia eta Ogasun Saila

Eusko Jaurlaritza

---

# 1/2023 JARRAIBIDEA, 2023KO MARTXOAREN 7KOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ERAKUNDE ADMINISTRAZIOAREN ETA SEKTORE PUBLIKOAN OSATZEN DUTEN GAINERAKO ERAKUNDEEN EROSKETAN ETA KONTRATAZIOAN INGURUMEN KLAUSULAK TXERTATZEARI BURUZKOA.

**HARTZAILEAK:** sailetako zerbitzu-zuzendaritzak edo kudeaketa ekonomikoko zuzendaritzak, erakunde autonomoetako zuzendaritzak, EAEko sektore publikoko gainerako erakundeetako zuzendaritza-organoak, kontratazioa sustatzen duten zerbitzuak edo unitateak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 28.d) artikulua araberak, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari dagokio honako eginkizun hau betetzea: *«Kontratazioaren alorrean egokitzen hartzen dituen arauak, zirkularrak, jarraibideak edo gomendioak prestatzea eta proposatzea, dagozkion eskumenen eremuan».*

Kontuan hartuta Jaurlaritzak Euskadiko erosketak eta kontratazio berdearen 2030 programari dagokionez hartutako konpromisoak, eta lehenetsitako kategoriak ardatz izanik, eta, aldi berean, administrazioaren eginkizun eredugarria sustatzeko Jaurlaritzak eta administrazioek koordinatutako mezu batetik abiatuta, honako jarraibide hau ematen da.

## **LEHENENGOA. - Jarraibidearen testuingurua eta xedea**

Kontratazio publikoari buruzko 2014ko Europako zuzentarauak<sup>1</sup>, eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen bitarteko transposizioak, aitortu dute erosketak eta kontratazio publikoak rol estrategikoa dutela gizarte-, ingurumen- eta berrikuntza-politikak ezartzen laguntzeko tresna gisa, baita ETEak sustatzeko politikak ezartzean ere. Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak berak praktika hori sustatzen du, eta honako hau ezartzen du 1.3 artikuluan:

---

<sup>1</sup> 2014/23/EB Zuzentaraua, 2014/24/EB Zuzentaraua eta 2014/25/EB Zuzentaraua.

*«Kontratazio publiko orotan, zeharkako eta aginduzko eran, irizpide sozial eta ingurumenekoak sartuko dira, kontratuaren xedearekin zerikusia duten bitartean, sinetsita haiek sartzeak kalitatea-prezioa erlazio hobea emango duela kontratu-prestazioan, bai eta efizientzia handiagoa eta hobea ere funts publikoen erabileran».*

Eta honako hau aipatzen da hitzaurrean:

*«Lege honetan kontratazio publikorako ezartzen den lege-sistemak [...] lortu nahi du kontratazio publikoa tresna gisa erabil dadila honako arlo hauetako Europako eta nazioko politikak ezartzeko: gizarte arloa, ingurumena, berrikuntza eta garapena, enpresa txiki eta ertainen sustapena eta lehiaren defentsa. Gai horiek guztiak legearen egiazko helburuak dira [...]».*

Kontratuaren xedeari dagokionez, 99. artikuluan honako hau adierazten da:

*«bete nahi diren beharrian edo funtzionaltasun zehatzei erreparatuta definitu ahalko da, kontratuaren objektua konponbide bakar batera mugatu gabe. Bereziki, kontratatzen diren ondasun, obra edo zerbitzuen efizientzia eta jasangarritasuna hobetzen duten berrikuntza teknologiko, sozial edo ingurumenekoak sar daitezkeela uste den kontratuetan definituko da modu horretan».*

Beraz, kontratuaren xedean bertan aipatu egiten dira ingurumen-ezaugarriak txerta daitezkeen kontratuetan ase beharreko premiak, eta hori egiteko hainbat aukera ematen dira. Horrela, bete beharreko premia proposatzen eta definitzen den lehen unean, ingurumen-auziak presente egon behar du. Eta kontratuan ingurumen-irizpideak sartzeari dagokionez, irizpide horiek lotura zuzena izan behar dute kontratuaren xedearekin. Honako hau dio 145.6 artikulua:

*«Honako kasu honetan egongo da loturik adjudikazio-irizpide bat kontratuaren objektuarekin: adjudikazio-irizpidea kontratu horren indarrez eman behar diren prestazioei dagokienez edo haiek integratzen dituzten, edozein alderditan eta bizi-zikloko edozein etapatan, horren barnean direla honako prozesu hauetan esku hartzen duten faktoreak:*

- a) Obren, horniduren edo zerbitzuen produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-prozesu zehatzean parte hartzen duten faktoreak, erreferentzia berezia eginez ingurumenaren eta gizartearen ikuspuntutik jasangarriak eta zuzenak diren produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-moduei;*
- b) edo bizi-zikloaren beste etapa bateko prozesu zehatzean parte hartzen duten faktoreak, baita faktore horiek substantzia materialaren zati bat ez direnean ere».*

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen ekainaren 21eko 2/2018 Gomendioa, kontratazio publikorako ingurumen-klausulak xede dituen, aurrerapauso bat izan zen, baina horri dagokionez lotura handiagoa duten ekintzak behar ditu.

Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 2030 Agendak<sup>2</sup> Garapen Jasangarrirako Helburu (GJH) espezifikoa ezarri du eresketa publiko jasangarriei dagokionez: GJH 12.7. «Politika eta lehentasun nazionalen arabera jasangarriak diren eresketa publikoko praktikak sustatzea». Eta Europar Batasunak, hazkunde-estrategia berrian (Europako Itun Berdea<sup>3</sup>), kontratazio publikoa eredugarria izatea eskatzen du, Batasuneko ekonomia bide jasangarriago baterantz bideratzen laguntzeko.

<sup>2</sup> Gure mundua eraldatzea: Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda. Nazio Batuen Batzar Nagusia, 2015.

<sup>3</sup> Europako Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Europako Kontseiluari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Lantaldeari. «Europako Itun Berdea» COM (2019) 640 azkena. Europako Batzordea, 2019.

Euskadik iraunkortasunarekin duen konpromisoa sendoa eta egonkorra da. Euskadiko erosketa eta kontratazio publiko berdearen historia eta ibilbidea Euskadik 12.7 garapen jasangarrirako helburuari egindako ekarpena da: 2002. urtean, Euskadik kontratazio publikoa tresna estrategiko gisa ikusi zuen, eta ekoizpen eta kontsumo eredu arduratsu, ingurumenaren aldetik jasangarri, lehiakor eta berritzaile bihurtzeko tresna gisa. Era berean, sektore publikoak merkaturan duen trakzio-zeregina eta zeregin eredugarria barneratu zituen. Horregatik, eta Euskadirako helburu gisa, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak (2002-2020) ezarri zuen «*irizpide ekologikoak sartuko zituen erosketa publikoen politika sustatzea*». Helburu hori, urratsez urrats, ibilbide luzeko prozesu batean gauzatu da, lhobek - Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak - bultzatu eta erraztua, euskal administrazioen eta enpresa sektorearen arteko koordinazioan eta lidergo partekatuan oinarrituta. Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian (2002-2020) zehaztutako konpromiso politikotik abiatuta, erosketa eta kontratazio publiko berdearen ibilbideak 4 etapa ditu Euskadin:

- 2005. urtean, lhobe Sozietate Publikoak bere kontratueta ingurumen irizpideak txertatzeko prozesuari ekin zion, eta gogoeta egin zuen Eusko Jaurlaritzarekin, foru aldundiekin eta Euskadiko udalekin, ekintzarako inspiratzeko asmoz. Gainera, lhobe enpresa hornitzaileekin lanean hasi zen eskaintako produktuen eta zerbitzuen ingurumen kalitatea hobetzeko. Denborarekin, hori izan da prozesuan arrakasta izateko gakoetako bat, eskaintzaren eta eskariaren arteko koordinazioa, batez ere Euskadiko erosketa eta kontratazio berdearen ingurumen irizpideak zehaztean.
- 2008an, Eusko Jaurlaritzak “Euskal administrazioaren kontratazioan gizarte eta ingurumen irizpideak edo beste politika publiko batzuk txertatzeari buruzko akordioa” onartu zuen, eta “Euskadiko erosketa eta kontratazio publiko berderako eskuliburu praktikoaren” lehen bertsioa argitaratu zen. Beraz, esparru politikoa eta oinarritzko baliabideak eta tresnak definitu ziren, euskal sektore publikoak kontratazioaren ingurumen irizpideak txertatzeko urratsak egin ahal izateko.
- 2011-2014 aldian ezarri zen lehenbizikoz Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa. Programa horrek bidea irekitzen lagundu zuen: kontratazio berdea diskurtso politikoan eta erakunde publikoen jardueran integratzen zen. Aldi horretan, 80 erakunde publikok laguntza eskatu zuten beren kontratazio prozesuetan ingurumen klausulak txertatzeko.
- 2015-2020 urteetan, arloan funtsezkoak diren eragileen arteko lankidetzeta eta lan harreman adierazgarriak sendotu ziren. Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programarekin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailarekiko harremana finkatu zen, euskal administrazio osoan erosketa publiko berdearen agertokia errazten baitzuen. Gainera, erakunde batzuek jauzi kualitatiboa eman zuten kontratazioan ingurumen irizpideak txertatzeari dagokionez eta beren antolamendu egituretan prozesua sistematizatzeari dagokionez. Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020ko Programa ixteak etapa berri baten hasiera markatzen du: hirugarren programa bat 2030erako, euskal ingurumen eta ekonomia politikekin eta Euskadi Basque Country 2030 Agendarekin koherentzian.

Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030 Programa berriaren helburua da EAEko sektore publikoaren eta pribatuaren erosketa-potentziala modu bikainean eta merkatuarekin koordinatuta erabiltzea, garapen sozioekonomiko jasangarria lortzeko eta, aldi berean, Euskadiko ingurumena, enpresa-lehiakortasuna eta herritarren ongizatea ahalik eta gehien babesteko. Horregatik, beharrezko administrazio-baldintza partikularren eta preskripzio teknikoaren agiriari begira, komeni da jarraibide batzuk ezartzea, kontratazio publikoko prozeduraren hainbat unetan ingurumen-klausulak sartzeko eta Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030 Programak urte honetarako eta datozen urteetarako ezarri dituen lehentasunetara egokitzeko. Hori dela eta, jarraibide hau kontratazio-arloetan lan egiten dutenei eta kontratazio-organoei zuzenduta dago, baina, bereziki, kontratuak sustatzen dituztenei, beharizanak hauteman eta ezagutzen dituztelako eta kontratazio bakoitzean garrantzitsuak izango diren ingurumen-eskakizunak inork baino hobeto ezagutzen dituztelako. Eta pertsona horiek izan beharko dute beren kabuz -gainera, batzuetan kontratuaren arduradun gisa-, edo obretako zuzendaritza fakultatiboarekin batera, baldintza-agirietan jasotako eskakizunak betetzen direla kontrolatu beharko dutenak.

Euskadin, Europako ekimenekin bat etorriz, dagoeneko hasi da laguntza politiko hori, eta gero eta ekonomia- eta ingurumen-estrategia gehiago daude, eta, ezarritako iraunkortasun-helburuak lortzeko, erosketa eta kontratazio publikoa tresna operatibo gisa barne hartzen dute. Horren adibide da Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legea bera. Horren bidez, administrazio publikoei eta sektore publikoko gainerako erakundeei administrazio-klausulen eta beren obra-, zerbitzu- eta hornidura-kontratuen baldintza tekniko zehatzen pleguetan adjudikazio-irizpideak, egikaritze-baldintza bereziak eta legean bertan ezartzen diren helburuak erdiesten lagunduko duten klausulak edo baldintzak txertatzera behartzen zaie. Hala ere, lortu nahi den inpaktua lortzeko, erosketa eta kontratazio berdea sartu behar da euskal sektore publikoko maila guztietako estrategia, plan, programa eta legeria esanguratsuetan. Horrela, eratorritako ekintzek EAEk 2030erako dituen lehentasunezko ingurumen-helburuak egituratzen, koordinatzen eta laguntzen dituztela bermatuko da, ingurumen-helburu horiek betetze aldera. Honako hauek dira helburu horiek: ekonomia lehiakor eta zirkularrerako trantsizioa, klima-aldaketa arintzea eta klima-aldaketara egokitzea eta ekosistemak babestea.

Jarraibide honen xedea honako hau da:

- Jaurlaritzak berak erosketa eta kontratazio berdearen 2030 programarekin hartutako konpromisoerik erantzutea, kategoria lehenetsiak ardatz izanik.
- Administrazioaren eginkizun eredugarria gauzatzea.
- Kategoria bakoitzean azpimarratu beharreko alderdi teknikoak argitzea, erosketa eta kontratazio ingurumenaren aldetik arduratsua izan dadin.
- Jaurlaritzak eta administrazioek mezu koordinatua eskaintzea, enpresa lizitatzailerei prestatzeko eta modu errazagoan erantzuteko aukera emateko.
- Gobernuaren beraren baliabideak optimizatzea, aukeratutako oinarritzko irizpideak erabilia.

## **BIGARRENA. - Aplikazio eremua**

Jarraibide hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko, Administrazio Instituzionaleko eta sektore publikoko gainerako erakundeetako kontratazio-organoei zuzenduta dago.

Aipatutako kontratazio-organo horiek jarraibide honetan xedatutakoa errespetatuko dute sektore publikoko kontratuen legerian araututako kontratuetako administrazio-klausula partikularren eta preskripzio tekniko partikularren agiriak egiteko unean.

Jarraibide honen eremu objektiboa sektore publikoko kontratuek osatzen dute.

Jarraibide honetan ezarritako betebeharrak obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuei aplikatuko zaizkie, honako produktu-kategoria hauetan:

- Elikadura
- Argiteria publikoa
- Eraikuntza eta urbanizazioa
- Energia elektrikoa
- Inprimatze-ekipoak
- Ekipo informatikoak
- Ekitaldiak
- Lorezaintza/berdeguneak
- Eraikinen garbiketa
- Mezularitza
- Altzariak
- Obra zibila eta azpiegiturak
- Bulegoko papera eta materiala

- Argitalpenak eta inprimaketa
- Ehunak
- Autobus-garraioa
- Ibilgailu arinak
- Ibilgailu astunak
- Bidaiak

## **HIRUGARRENA. - Administrazio publikoen betebeharrak**

Prozedura ireki eta prozedura ireki sinplifikatu bidezko lizitazio guztietan, arestian aipatutako produktu-kategorietan, I. ERANSKINEAN zehaztutako oinarritzko ingurumen-irizpideak sartu beharko dira kontratazio-agirietan.

Ingurumen-irizpide horiek kontratuaren xedearen definizioan, kaudimen-irizpideetan, preskripzio teknikoetan, adjudikazio-irizpideetan eta/edo egikaritze-baldintza berezietan sartuko dira, eta kontratu publikoen administrazio-klausula partikularren agirietan edo preskripzio tekniko partikularren agirietan txertatu beharko dira.

Administrazio bakoitzak I. eranskinean jasotako ingurumen-irizpideak lizitazio partikular bakoitzera egokitu beharko ditu; dena den, baliteke jarraibide honetan xedatutako ingurumen-irizpide batzuk ez izatea kontratuaren helbururako aproposak. Hortaz, irizpide horiek kontratuaren xedearekin lotuta egon daitezela eskatu behar da, eta behar bezala arrazoitu behar da zergatik txertatu diren eta berariaz justifikatu behar da kontratazio-espeditentean sartu izana.

I. eranskinean jasotako adjudikazio-irizpideen puntuazioak orientagarriak dira, eta erakunde lizitatzailleak azkenean sartutako irizpideen arabera aldatu beharko dira. Nolanahi ere, ingurumen arloko adjudikazio-irizpideek gutxienez 15 puntu puntuatuko dituzte, adjudikazio-irizpideen guztizko 100 puntuetatik.

I. eranskinean, produktu-kategoria bakoitzerako egiaztapen-dokumentazioa jasotzen da. Dokumentazio hori hainbat ingurumen-ziurtagiri eta ekoetiketa dira, eta zehaztapen edo irizpide baloragarri bakoitza betetzen dela (edo informazioa jasota dagoela) argien ziurtatzen dutenak dira. Hala ere, bestelako egiaztagiriko balioak ere onartuko dira, baldin eta argi eta garbi frogatzen badute ezarritako irizpideak betetzen direla.

Administrazio publikoak, apurka-apurka, gero eta ingurumen-irizpide gehiago txertatzen joan ahal izango dira, jarraibide honetan ezarritakoez gain beste batzuk gehituta. Horretarako, I. eranskinean webgunean produktu-kategoria bakoitzerako eskuragarri dagoen material guztia kontsultatu ahal izango dute: <https://www.lhobe.eus/ingurumen-irizpideak>.

## **LAUGARRENA.- Ingurumen-konpromisoak**

Kasuan kasuko kontratuarekin lotutako ingurumen-irizpideak betetzen direla ziurtatzeko, urtebetetik gorako iraupena duten kontratuetan, eta betiere kontratuaren xedearekin lotura badute, ingurumena betearazteko baldintza berezi hau sartuko da administrazio-klausula partikularren edo preskripzio tekniko zehatzen pleguetan:

*“Enpresa adjudikaziodunak txosten bat bidaliko du urtero, kontratuan bere gain hartutako ingurumen-konpromiso guztiak jasoko dituena, eta konpromiso horiei eman zaien erantzuna jasoko du, baita egiaztagiriak ere. Ingurumen-konpromiso horiek agiri teknikoan jasotakoak, ingurumen-izaerako egikaritze-baldintza bereziak eta adjudikazio-irizpideen bidez baloratutakoak dira.*

*Konpromisoen zerrenda:*

*1. ...*

*2. ...*


*3. ...*

*4. - Beste alderdi batzuk: adjudikaziodunaren arabera, lanen garapenean ingurumenean eragin positiboa izan dezaketen gai guztien deskribapena.*

*....”*

# I. ERANSKINA

## ONARRIZKO IRIZPIDE SINPLIFIKATUAK KATEGORIAREN ARABERA



Jarraian, jarraibide honen xede diren kategorietarako oinarrizko irizpide sinplifikatuak jaso dira. Gainera, kategoria horietarako eta beste batzuetarako ingurumen-irizpide aurreratuak berrikusi eta/edo zabaldu daitezke lhoberen webguneko ingurumen-irizpideen atalean.

Kategorien aurkibidea:

### **ELIKADURA**

- **Catering-zerbitzua**
- **Jangela-zerbitzua**
- **Vending-zerbitzua**

### **ARGITERIA PUBLIKOA**

### **ERAIKUNTZA ETA URBANIZAZIOA**

- **Eraikuntza-proiektua**
- **Eraikuntza-obra gauzatzea**
- **Urbanizazio-proiektua**
- **Urbanizazio-obra gauzatzea**

### **ENERGIA ELEKTRIKOA**

### **INPRIMATZE-EKIPOAK**

### **EKIPO INFORMATIKOAK**

### **EKITALDIAK**

### **LOREZAINZA/BERDEGUNEAK**

### **ERAIKINEN GARBIKETA**

**MEZULARITZA****ALTZARIAK****OBRA ZIBILA ETA AZPIEGITURAK**

- Obra zibileko proiektua
- Obra zibila gauzatzea
- Obra hidraulikoko proiektua
- Obra hidraulikoa gauzatzea

**BULEGOKO PAPER A ETA MATERIALA**

- Papera
- Bulego materiala

**ARGITALPENAK ETA INPRIMAKETA****EHUNAK**

- Laneko arropa eta oinetakoak
- Barruko ehunak

**AUTOBUS-GARRAIOA**

- Autobusak erostea
- Autobus-zerbitzua

**IBILGAILU ARINAK**

- Ibilgailuak erostea
- Ibilgailuen alokairua

**IBILGAILU ASTUNAK****BIDAIAK**



## CATERING-ZERBITZUA

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Catering-zerbitzuetan ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Sasoiko eta nekazaritza ekologikoko produktuak lehenestea.
- Ahal den neurrian, erabili eta botatzeko produktuak saihestea, ontzi- eta enbalaje-hondakinak murrizteko, eta catering-tresneria berrerabilgarria erabiltzea.
- Hondakinen gaikako bilketa egitea.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da catering-zerbitzua ingurumen-irizpideen arabera kontratatzea, elikagaien ekoizpenaren eta zerbitzuaren eragina murrizteko.

### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

#### ELIKAGAIAK

1. Edariei dagokienez, kafea behintzat, nekazaritza ekologikokoa izango da, 2018/848 (EB) Erregelamenduari edo ondorengo bertsioei jarraiki.  
*Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauek aurkeztu beharko dira: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*
2. Janariari dagokionez, menuetako produktu nagusiak [topilgintzako zerbitzuetan izan ezik] sasoikoak izango dira. "Sasoikoa" terminoak plateren izenburuan agertzen diren produktuei egingo die erreferentzia (adibidez, espinaka-tortilla edo kiwi eta sagar broxeta), eta aire zabalean hazten diren edo eskualdean sasoi bakoitzean arrantzatzen diren produktuak izango dituzte ardatz. Gida gisa, II. eranskineko sasoiko produktuen egutegia erabil daiteke.
3. Zerbitzu guztietako osagaien pisuaren % 10 gutxienez nekazaritza ekologikotik datozen osagaiak izango dira, 2018/848 (EB) Erregelamenduari edo ondorengo bertsioei jarraiki.  
Ebaluatzeko, zerbitzu bakoitzeko menu-proposamena aurkeztu beharko da, I. eranskinean jasotako informazio guztia zehaztuz.  
*Egiaztapena: Honako abal hauek aurkeztu beharko dira: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

#### ONTZIAK ETA ENBALAJEAK

4. Ura etxekoa izango da eta pitxerretan zerbitzatuko da. Ez da inoiz ontzietan zerbitzatuko.  
*Egiaztapena: Honako abal hauek aurkeztu beharko dira: 6 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*
5. Ahal den neurrian, ahalik eta ontzi-hondakin gutxien sortuko da, eta dosi bakarreko produktuak saihestuko dira, azukrearen kasuan bezala.  
*Egiaztapena: Honako abal hauek aurkeztu beharko dira: 6 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

#### BAXERA, MAHAI-TRESNAK, BEIRATERIA ETA MAHAI-ZAPIAK

6. [Jai-ekitaldiak ez badira] Baxera, beirateria, mahai-tresnak eta mahai-zapiak berrerabilgarriak izango dira (kristala, portzelana, metala, oihala).  
*Egiaztapena: Honako abal hauek aurkeztu beharko dira: 6 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

## EGIKARITZE-IRIZPIDEAK

## HONDAKINEN KUDEAKETA

7. Kontratua gauzatzean sortutako hondakinak gaika bilduko dira, eta honela zatituko dira: papera eta kartoia, ontziak (plastikoak, potoak, tetra-brickak, porexpana), beira, materia organikoa, hondakin bereziak (olio erabilia eta bestelakoak) eta gainerakoak.

Hiri-hondakinen hondakin asimilagarriak dagokien gaika biltzeko hiri-edukiontzietan utziko dira. Hondakin bereziak (olio erabilia, adibidez) baimendutako kudeatzaile edo garbigune baten bidez kudeatuko dira. Kontratuaren hasieran, esleipendunak hondakin bereziak emango dizkien kudeatzaile baimenduen erreferentziak aurkeztuko ditu.

## ERABILTZAILEENTZAKO INFORMAZIOA:

8. Enpresa esleipendunak zerbitzuan bertan jakinaraziko die erabiltzaileei zer ingurumen-irizpide sartu dituen, adibidez, kartelen bidez; bertan, nekazaritza ekologikoaren ziurtagiria zer produktuk duten adieraziko da, etab.

## ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

## ELIKAGAIK (gehienez 10 puntu lor daitezke)

9. Honako produktu hauen ehuneko ahalik eta handiena (pisuaren arabera) izatea baloratuko da:
- Nekazaritza ekologikoko produktuak, aurreko definizioaren arabera (gehienez 4 puntu).
  - Ekoizpen integratuko produktuak, Euskolabeleko ekoizpen integratuko estandarren edo baliokideen arabera (gehienez 2 puntu).
  - Animalia-produktuak (haragia, esnea eta/edo arrautzak), baldin eta animalien ongizate-estandar handiagoekin ekoizitakoak badira, eskualdeko, nazioko edo nazioarteko estandarretan definitutakoak, hala nola Euskolabel edo baliokideak (gehienez 2 puntu).
  - Arraina edo itsaskiak, baldin eta itsasertzeko espezieak edo elikadura-kateko maila baxuetakoak badira (hau da, belarjaleak), hala nola, sardinak, antxoak, txitxarroak... edo Marine Stewardship Council (MSC), Aquaculture Stewardship Council (ASC), Euskolabel edo baliokideen estandarrean ezarritako iraunkortasun-irizpideen arabera arrantzatu edo ekoizti badira (gehienez ere 2 puntu).

*Egiaztapena: Produktu bakoitzerako honako abal hauek aurkeztu beharko dira: 1, 2, 3 edo 4 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

## BAXERA, MAHAI-TRESNAK, BEIRATERIA ETA MAHAI-ZAPIAK (gehienez 5 puntu lor daitezke)

10. **[Jai-ekitaldietan]** Baloratuko da baxera, beirateria eta mahai-tresnak biodegradagarriak eta konpostagarriak izatea, EN 13432 aruari edo baliokideei jarraiki (janari-hondarrekin batera biltzeko); edo, bestela, berrerabilgarriak izatea; kasu horretan, enpresa esleipendunak gordailu-itzulera sistema bat antolatu beharko du, mailegatutako produktuak berreskuratzeko.




*Egiaztapena: Proposatutako produktu bakoitzerako honako abal hauek aurkeztu beharko dira: 5 eta 6 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

## EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Ekoizlearen nekazaritza ekologikoko ziurtagiria edo produktuaren etiketa (ontziratuta badago)



5. Fitxa teknikoa

<p>2. Ekoizlearen ekoizpen integratuko ziurtagiria edo produktuaren etiketa (ontziratuta badago)<sup>4</sup></p>		<p>6. Txosten teknikoak</p>
<p>3. Ekoizlearen animalia-ongizateko ziurtagiria edo produktuaren etiketa (ontziratuta badago)<sup>5</sup></p>		
<p>4. Ekoizlearen arrantza jasangarriko ziurtagiria edo produktuaren etiketa (ontziratuta badago)<sup>6</sup></p>		

**I. ERANSKINA: menua eta proposatutako elikagaien eta edarien ezaugarriak**

Memorian, zerbitzu mota (gosaria, bazkaria, atsedenaldua-kafea, afaria) eta data zehaztu beharko dira. Zerbitzu bat baino gehiago kontratatzen bada, zerbitzu bakoitzerako taula bana bete beharko da. Taula bakoitzean, zerbitzuan erabiliko diren produktu adina lerro gehituko dira.

1. zerbitzua: Zehaztu

PLATERRA	PREZIOA	OSAGAIA (gramoak)	ENPRESA EKOIZLEA	URTE-SASOIKOA	BETETZEN DITUEN IRIZPIDEAK:				
				BAI/ EZ/ ez da aplikatzen	NE	EI	AO	AI	IA
					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

NE= nekazaritza ekologikoa, EI= ekoizpen integratua, AO= animalien ongizatea, AI= arrantza jasangarria, IA= itsasertzeko arrantza edo belarjalea.

**II. ERANSKINA: Sasoiko produktuen egutegiaren taula**

(<https://www.nirea.eus/eu/sasoiko-produktuak-egutegia/>)

<sup>4</sup> Honako hauek dira Ekoizpen Integratuko irizpideak dituzten produktuak: zerba, letxuga, piperra, tomatea, patata, kiwia, mahatsa, sagarra eta ogia egiteko garia. Hala ere, azken bi horiek ardoa eta sagardoa ekoizteko erabiltzen dira nagusiki. Honako hauek dira Euskolabel irizpideak dituzten produktuak: Gernikako piperra, Ibarrako piparrak, tomatea, letxuga, babarrunak, sagardoa, olio, patatak eta zerealak. Horietatik, ekoizpen integratua inplizituki % 100ean betetzea soilik honako produktu hauetan dago: Gernikako piperra, Euskal tomatea, Euskal Letxuga eta Arabako Patata. Sagarraren, zerbaren, ardotarako mahatsaren eta ardoaren ekoizpenean badira ekoizpen integratuko araua betetzen duten ekoizleak, baina Eusko Labeleko produktu horien kasuan, ekoizpen integratuko irizpideak ez dira inplizituki betetzen kasuen % 100ean.

<sup>5</sup> Honako hauek dira animalien ongizate-irizpideak dituzten Euskolabel produktuak: behikia, esneko arkumea, txerria, oilaskoa, esnea, arrautzak eta ezta.

<sup>6</sup> Honako hauek dira arrantza-irizpideak dituzten Euskolabel produktuak: hegaluzea, atuna eta antxoak. Arrantza-irizpideak dituzten MSC eta ASC produktuak estandar bakoitzaren web-orrietan kontsulta daitezke (ingelesez):  
 - MSC (Marine Stewardship Council) <https://fisheries.msc.org/en/fisheries/@@search>  
 - ASC (Aquaculture Stewardship Council) <https://www.asc-aqua.org/what-you-can-do/take-action/find-a-product/>



Boilura	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	✓
Lekak	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	-	-
Azenarioa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓

## FRUTAK

	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
Ahabia	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-
Gerezia	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-
Arana	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-
Mugurdia	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-	-
Marrubia	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-	-
Andere-mahatsa	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-
Pikua	-	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-	-
Kiwia	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-	-	✓
Sagarra	✓	✓	✓	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Melokotoia	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-
Masusta	-	-	-	-	-	-	-	✓	✓	-	-	-
Mispira	-	-	-	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓
Udarea	✓	✓	✓	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Mahatsa	-	-	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-

## HARAGIA

	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
Txerria	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Untxia	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Esne bildotsa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	✓	✓
Oilaskoa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Potroa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Behi-haragia	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓

## ARAINAK ETA ITSASKIAK

	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
Antxoa	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-
Bakailaoa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Hegaluzea	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	-	-
Txitxarroa	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-
Txipiroia	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-
Atungorri	-	-	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-
Oilarra	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Legatza	-	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-	✓
Lupia	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Legatza	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Zapoa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Sardina	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-
Berdela	-	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-

## JANGELA-ZERBITZUA

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Jangela-zerbitzuen kontratazioan ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Sasoiko eta nekazaritza ekologikoko produktuak lehenestea.
- Ahal den neurrian, erabili eta botatzeko produktuak saihestea, ontzi- eta enbalaje-hondakinak murrizteko, eta catering-tresneria berrerabilgarria erabiltzea.
- Hondakinen gaikako bilketa egitea.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da jangela-zerbitzua ingurumen-irizpideen arabera kontratatzea, elikagaien ekoizpenaren eta zerbitzuaren eragina murrizteko.

### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

#### ELIKAGAIAK

1. Janariari dagokionez, menuetako produktu nagusiak [opilgintzako zerbitzuetan izan ezik] sasoikoak izango dira. "Sasoikoa" terminoak plateren izenburuan agertzen diren produktuei egingo die erreferentzia (adibidez, espinaka-tortilla edo legatza saltsa berdean), eta aire zabalean hazten diren edo eskualdean sasoi bakoitzean arrantzatzen diren produktuak izango dituzte ardatz. Gida gisa, II. eranskineko sasoiko produktuen egutegia erabil daiteke.
2. Aste bakoitzeko menuen osagaien pisuaren % 10 gutxienez nekazaritza ekologikotik datozen osagaiak izango dira, 2018/848 (EB) Erregelamenduari edo ondorengo bertsioei jarraiki. Ebaluatzeko, zerbitzu bakoitzeko menu-proposamena aurkeztu beharko da, I. eranskinean jasotako informazio guztia zehaztuz.  
*Egiaztapena: Honako abal hauek aurkeztu beharko dira: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

#### ONTZIAK ETA ENBALAJEAK

3. Ura etxekoa izango da eta pitxerretan zerbitzatuko da. Ez da inoiz ontzietan zerbitzatuko.  
*Egiaztapena: Honako abal hauek aurkeztu beharko dira: 5 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*
4. Ahal den neurrian, ahalik eta ontzi-hondakin gutxien sortuko da, eta dosi bakarreko produktuak saihestuko dira, azukrearen kasuan bezala.  
*Egiaztapena: Honako abal hauek aurkeztu beharko dira: 5 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

#### BAXERA, MAHAI-TRESNAK, BEIRATERIA ETA MAHAI-ZAPIAK

5. Baxera, beirateria eta mahai-tresnak berrerabilgarriak izango dira (kristala, portzelana, metala).  
*Egiaztapena: Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 5 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

### EGIKARITZE-IRIZPIDEAK

#### HONDAKINEN KUDEAKETA

6. Kontratu gauzatzean sortutako hondakinak gaika bilduko dira, eta honela zatituko dira: papera eta kartoia, ontziak (plastikoak, potoak, tetra-brickak, porexpana), beira, materia organikoa, hondakin bereziak (olio erabilia eta bestelakoak) eta gainerakoak.





## ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

## ELIKAGAIK (gehienez 15 puntu lor daitezke)

7. Honako produktu hauen ehuneko ahalik eta handiena (pisuaren arabera) izatea baloratuko da:
- Nekazaritza ekologikoko produktuak, aurreko definizioaren arabera (gehienez 6 puntu).
  - Ekoizpen integratuko produktuak, Euskolabeleko ekoizpen integratuko estandarren edo baliokideen arabera (gehienez 3 puntu).
  - Animalia-produktuak (haragia, esnea eta/edo arrautzak), baldin eta animalien ongizate-estandar handiagoekin ekoiztakoak badira, eskualdeko, nazioko edo nazioarteko estandarretan definitutakoak, hala nola Euskolabel edo baliokideak (gehienez 3 puntu).
  - Arraina edo itsaskiak, baldin eta itsasertzeko espezieak edo elikadura-kateko maila baxuetakoak badira (hau da, belarjaleak), hala nola, sardinak, antxoak, txitxarroak... edo Marine Stewardship Council (MSC), Aquaculture Stewardship Council (ASC), Euskolabel edo baliokideen estandarrean ezarritako iraunkortasun-irizpideen arabera arrantzatu edo ekoizti badira (gehienez ere 3 puntu).

*Egiaztapena: Produktu bakoitzerako honako abal hauek aurkeztu beharko dira: 1, 2, 3 edo 4 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

## EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Ekoizlearen nekazaritza ekologikoko ziurtagiria edo produktuaren etiketa (ontziratuta badago)		5. Txosten teknikoa
2. Ekoizlearen ekoizpen integratuko ziurtagiria edo produktuaren etiketa (ontziratuta badago) <sup>7</sup>		
3. Ekoizlearen animalia-ongizateko ziurtagiria edo produktuaren etiketa (ontziratuta badago) <sup>8</sup>		
4. Ekoizlearen arrantza jasangarriko ziurtagiria edo produktuaren etiketa (ontziratuta badago) <sup>9</sup>		

<sup>7</sup> Honako hauek dira Ekoizpen Integratuko irizpideak dituzten produktuak: zerba, letxuga, piperra, tomatea, patata, kiwia, mahatsa, sagarra eta ogia egiteko garia. Hala ere, azken bi horiek ardoa eta sagardoa ekoizteko erabiltzen dira nagusiki. Honako hauek dira Euskolabel irizpideak dituzten produktuak: Gernikako piperra, Ibarrako piparrak, tomatea, letxuga, babarrunak, sagardoa, olio, patatak eta zerealak. Horietatik, ekoizpen integratua inplizituki % 100ean betetzea soilik honako produktu hauetan dago: Gernikako piperra, Euskal tomatea, Euskal Letxuga eta Arabako Patata. Sagarraren, zerbaren, ardotarako mahatsaren eta ardoaren ekoizpenean badira ekoizpen integratuko araua betetzen duten ekoizleak, baina Eusko Labeleko produktu horien kasuan, ekoizpen integratuko irizpideak ez dira inplizituki betetzen kasuen % 100ean.

<sup>8</sup> Honako hauek dira animalien ongizate-irizpideak dituzten Euskolabel produktuak: behikia, esneko arkumea, txerria, oilaskoa, esnea, arrautzak eta ezta.

<sup>9</sup> Honako hauek dira arrantza-irizpideak dituzten Euskolabel produktuak: hegaluzea, atuna eta antxoak.

Arrantza-irizpideak dituzten MSC eta ASC produktuak estandar bakoitzaren web-orrietan kontsulta daitezke (ingelesez):

- MSC (Marine Stewardship Council) <https://fisheries.msc.org/en/fisheries/@@search>

- ASC (Aquaculture Stewardship Council) <https://www.asc-aqua.org/what-you-can-do/take-action/find-a-product/>

## I. ERANSKINA: menua eta proposatutako elikagaien eta edarien ezaugarriak

Memorian, zerbitzu mota (gosaria, bazkaria, atsedenaldua-kafea, afaria) eta data zehaztu beharko dira. Zerbitzu bat baino gehiago kontratatzen bada, zerbitzu bakoitzerako taula bana bete beharko da. Taula bakoitzean, zerbitzuan erabiliko diren produktu adina lerro gehituko dira.

1. zerbitzua: Zehaztu

PLATERRA	PREZIOA	OSAGAIA (gramoak)	ENPRESA EKOIZLEA	URTE- SASOIKOA  BAI/ EZ/ ez da aplikatzen	BETETZEN DITUEN IRIZPIDEAK:				
					NE	EI	AO	AI	IA
					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

**NE**= nekazaritza ekologikoa, **EI**= ekoizpen integratua, **AO**= animalien ongizatea, **AI**= arrantza jasagarria, **IA**= itsasertzeko arrantza edo belarjalea.

## II. ERANSKINA: Sasoiko produktuen egutegiaren taula

<https://www.nirea.eus/eu/sasoiko-produktuak-egutegia/>

### BARAZKIAK

	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
Zerba	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Txikoria	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓
Baratzuri freskoa	-	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-
Babarrun zuria	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Babarrun beltza	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Babarrun gorria	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Apioa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Apioa-arbia	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓
Alberjina	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	-	-
Borrajia	✓	✓	✓	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Brokolia	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓
Kuiatxo	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	-	-
Kalabaza	✓	✓	✓	✓	✓	-	-	-	✓	✓	✓	✓
Kardoa	✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	✓
Tipula zuria	✓	✓	✓	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Tipula gorria	✓	✓	✓	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Tipulina	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	-
Bihotza	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Aza	✓	✓	✓	✓	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Bruselazko aza	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-	-	✓
Azalorea	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓

Letxuga ezberdinak	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Eskarola	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓
Zainzuria	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-
Espinaka	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-	✓	✓	✓	✓
Ilarrak	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-
Babatxoak/Babak	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-
Mihilua	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓
Lombarda	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	✓	✓
Arbi zuria	✓	✓	✓	✓	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Patata	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓
Pepinoa	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	-	-
Italiako piperra	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	-	-
Piper txorizeroak	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Gernikako Piperrak/ Ibarrako piparrak	-	-	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-
Potxa	-	-	-	-	-	-	-	✓	✓	-	-	-
Porrua	✓	✓	✓	✓	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Lutxarbitxoak	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-	✓	✓	✓	✓
Erremolatxa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Romanesko	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓
Rukula	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Tomatea	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-
Boilura	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	✓
Lekak	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	-	-
Azenarioa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓

## FRUTAK

	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
Ahabia	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-
Gerezia	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-
Arana	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-
Mugurdia	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-	-
Marrubia	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-	-
Andere- mahatsa	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-
Pikua	-	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-	-
Kiwia	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-	-	✓
Sagarra	✓	✓	✓	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Melokotoia	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-
Masusta	-	-	-	-	-	-	-	✓	✓	-	-	-
Mispira	-	-	-	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓
Udarea	✓	✓	✓	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Mahatsa	-	-	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-

## HARAGIA

	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
Txerria	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Untxia	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Esne bildotsa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	✓	✓
Oilaskoa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Potroa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Behi-haragia	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓

## ARRAINA ETA ITSASKIAK

	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
Antxoia	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-
Bakailaoa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Hegaluzea	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	-	-
Txitxarroa	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-
Txipiroia	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-
Atungorri	-	-	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-
Oilarra	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Legatza	-	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-	✓
Lupia	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Legatza	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Zapoa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Sardina	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-
Berdela	-	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-

## VENDING-ZERBITZUA

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Salmenta-makinak instalatzeko espazio publikoa erabiltzeko emakidan ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Vending-makinen energia-kontsumoa.
- Ontzien erabilera murriztea.
- Vending-makinetako produktuek ingurumen-alderdiren bat kontuan hartzea, hala nola, nekazaritza ekologikotik eratorritako produktuak izatea.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da salmenta-makinak instalatzeko espazio publikoa erabiltzeko baimena ematea [salmenta-makinek edariak (hotzak eta/edo beroak) eta/edo janaria izango dituzte], betiere ingurumen-irizpideak kontuan hartuta.

#### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

##### ENERGIA-ERAGINKORTASUNA (VENDING-MAKINA HOTZAK ETA BEROAK)

1. Lizitzaileek leku bakoitzerako proposatzen dituzten makinen zerrenda aurkeztuko dute, eta makina bakoitzak honako baldintza hauek bete beharko ditu:
  - Makina hoztuek gutxienez D motako energia-eraginkortasuna izan beharko dute, 2019/2018 (EB) Erregelamendu Delegatuaren arabera.
  - Edari beroen makinek gutxienez C sailkapen energetikoa izan beharko dute, Vendingeko Europako Elkarteko testaren (EVA-EMP 3.1b) edo baliokidearen arabera kalkulatuta.

*Egiaztapena: Honako abal hau aurkeztu beharko da makina bakoitzeko:*

*Makina hoztuen kasuan: 1 edo 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

*Edari beroen makinen kasuan: 1 edo 4 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

##### EDALONTZIRIK GABEKO ZERBITZUA

2. Edari beroen makina guztiak (bene-benetan justifikatutako kasuetan izan ezik) kafe-alekoak izango dira, zerbitzua edalontziarekin eta edalontzirik gabe eskaintzeko aukera emango dute, eta prezio-sistema bikoitza izango dute aukera horietako bakoitzerako. Edalontziarekin egindako zerbitzuaren kostuak XX zentimoko gainkostua ekarriko du [administrazioak zehaztuko du].

*Egiaztapena: Honako abal hau aurkeztu beharko da makina bakoitzeko: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

[OHARRA: Enpresa lizitzaileek ezin izango dute energia-kontsumoei buruzko informaziorik aurkeztu formula bidezko balorazio-irizpideak jasotzen dituen gutun-azalaren aurreko gutun-azaletan.]

### EGIKARITZE-IRIZPIDEAK

##### KOMUNIKAZIOA

3. Enpresa esleipendunak, salmenta-makinetan, argi eta garbi eta ondo ikusteko moduan jakinarazi beharko ditu honako hauek:
  - zein produktu diren nekazaritza ekologikokoak.
  - [Edari beroen makinetan] erabili eta botatzeko edalontzia erabiltzeagatiko gainkargua eta “edalontziarekin” markatu beharra, “edalontzirik gabe” aukera lehenetsia bada.

## ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

### KONTSUMO GUTXIAGO (gehienez 8 puntu lor daitezke)

4. Makinek urtean kWh gutxiago kontsumitzea baloratuko da, makina bakoitzari buruz aurkeztutako datuen arabera.

*Egiaztapena:* Honako abal hau aurkeztu beharko da makina bakoitzeko:

[makina hoztuen kasuan] 1 edo 4. (ikus egiaztapen-dokumentazioa).


[edari beroen makinen kasuan] 1, 2 edo 3. (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

### NEKAZARITZA EKOLOGIKOKO PRODUKTUAK (gehienez 7 puntu lor daitezke)

5. Nekazaritza ekologikotik eratorritako produktuen ehunekoa baloratuko da.

*Egiaztapena:* Produktuen zerrenda aurkeztu beharko da, eta proposatutako produktu ekologiko bakoitzerako honako abal hau aurkeztu beharko da: 5. (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

## EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Fitxa teknikoa
2. EN / EVA-EMP arauaren arabeko testa
3. Urteko energia-kontsumoak EN-50597 estandarraren arabera
4. Etiketa energetikoa 2019/2018 (EB) Erregelamendu Delegatuaren arabera
5. Nekazaritza ekologikoko ziurtagiria 



## INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Argiteria publikorako argiak eskuratzeko eta instalatzeko kontratazioan ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Ekipoen eraginkortasuna.
- Ekipoen balio-bizitza.
- Daukan argi urdina.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da energetikoki eraginkorrak diren argien hornidura eta instalazioa kontratatzea.

#### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

##### ARGI-ERAGINKORTASUNA

1. Instalatzen diren argiztapen-ekipoek argi-eraginkortasun hau baino handiagoa izan behar dute:

Argi mota	lm/W
Funtzionala	110
Ingurumenekoa	80
Argiontzia	80
Proiektorea	110

*Egiaztapena:* Eskainitako ekipo bakoitzerako honako abal hauek aurkeztu beharko dira: 1. (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

##### LEDAREN BALIO-BIZITZA

2. LED teknologian oinarritutako argi-iturri orok gutxienez L80B10 50.000 orduko bizitza nominala izango du (25 °C).

*Egiaztapena:* Eskaintzan sartutako argi bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1. (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

##### KOLORE TEMPERATURA

3. Argi-kutsadura murrizteko eta naturaguneetan ondorio negatiboak saihesteko, kolore-tenperatura, gehienez, 4.000 K-koa izango da.

Erakunde kontratatzaileak ekologikoki sentikortzat jotzen dituen parke, lorategi eta eremuetan argi-iturrien kolore-tenperatura 3.000 K-koa izango da gehienez, argi urdin kopurua txikiagoa izan dadin.

*Egiaztapena:* Eskainitako ekipo bakoitzerako honako abal hauek aurkeztu beharko dira: 1. (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

##### ARGI-KUTSADURA

4. Argien goiko fluxu hemisferikoa % Okoa izan behar da bide-mota guztietan eta beste balio bat esplizituki desiragarria ez den argiztapen-egoeretan.

*Egiaztapena:* Eskainitako ekipo bakoitzerako honako abal hauek aurkeztu beharko dira: 1. (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

## EGIKARITZE-IRIZPIDEAK

### HONDAKINEN KUDEAKETA

5. Kendutako lanparak, argiak eta argiztapen-kontrolak bereizi egingo dira eta baliaraztera bidaliko dira, GEEH Errege Dekretuaren arabera. Enpresa esleipendunak hondakinen kudeaketa zuzena ziurtatzen duten txostenak aurkeztu beharko ditu.

## ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

### ARGI-ERAGINKORTASUNA (gehienez 15 puntu lor daitezke)

6. Eskainitako argi-eraginkortasuna handia izatea baloratuko da:  
*Egiaztapena: Eskainitako ekipo bakoitzerako honako abal hauek aurkeztu beharko dira: 1. (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

## EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Argiaren fitxa teknikoa



## ERAIKUNTZA-PROIEKTUA

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Eraikuntza berrien edo eraikinen birgaikuntzen proiektuetan ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Ur-, energia- eta erregai-kontsumoaren eraginkortasuna eraikina erabiltzean.
- Ingurumenaren aldetik hobeak diren materialak aukeratzea (berrerabiliak, jatorri berriztagarrikoak, birziklatuak, birziklagarriak, substantzia toxikorik gabekoak, etab.).
- Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen eta eraikinaren bizi-amaieraren kudeaketa proiektu-fasetik.

Proiektuan sartu beharreko ingurumen-kontsiderazioen erreferentzia gisa Eraikuntza eta Birgaitze Iraunkorrerako Gidak kontsulta daitezke.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da eraikuntza-proiektua idazteko eta/edo zuzendaritza fakultatiboa egiteko zerbitzua kontratatzea, betiere eraikuntza jasangarriko printzipioak eta arkitektura bioklimatikoko, ekodiseinuko eta ekonomia zirkularreko printzipioak kontuan hartuta, ingurumena eta osasuna gehien errespetatzen dituzten produktuak, materialak eta eraikuntza-sistemak erabiltzeko, bai eta eraikinaren bizi-ziklo osoko eraginak murrizteko konponbideak erabiltzeko ere.

### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

#### HONDAKINAK KUDEATZEKO AZTERKETA

1. Hondakinak kudeatzeko azterketak LER-170904 kodearen % 5eko sortzeko gehieneko helburua jasoko du, eta gutxienez % 85eko balorizazio-helburua, azterketa horretan aurreikusitako hondakinen guttizkoari dagokionez.

Hondakinak kudeatzeko azterketa egiteko, honako aplikazio hau erabiliko da: EEH AURREZTEN: EGRak, PGRak eta IFGak idazten eta berrikusten laguntzeko tresna.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

#### BIGARREN MAILAKO MATERIALA

2. Proiektuak barne hartu behar du azpiproduktuen, bigarren mailako lehengaien, material birziklatuen edo berrerabiltzeko prestaketa-prozesuetatik eratorritako materialen ehunekoaren kalkulua, obraren guttizkoaren gainean, lhobek "Eraikuntzan material birziklatuak erabiltzeko gidaliburuan" eta erantsitako kalkulu-tresnan<sup>10</sup> (Material birziklatuen kalkulagailua) garatutako metodologiaren arabera.

Proiektuak, obraren guttizkoaren gainean (pisua), azpiproduktuak, bigarren mailako lehengaiak, material birziklatuak edo berrerabiltzeko prestaketa-prozesuetatik datozen materialak % 40<sup>11</sup> izango direla bermatu behar du.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

<sup>10</sup> Gida hori, prestatzen ari den beste honengatik ordeztuko da: "Euskadiko ingurumen administrazioaren legea betetzeko gida: Bigarren mailako materialak sartzeko obren kontratazioan". Prest dagoenean, eskuragarri egongo da lhoberen webguneko argitalpenen atalean, [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus).

<sup>11</sup> Bigarren mailako materialen % 40aren aplikazio-atalaseak Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 84. artikuluan du lege-ainguraketa.

### EGURRA ETA EGURREZKO PRODUKTUAK

3. Proiektuko egurra eta egurrezko produktuak legezko iturrietakoak izan beharko dira, eta ezingo dira CITESen jasotako espezie mehatxatuetatik etorri (Convention International Trade of Endangered Species).

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

### URA HORNITZEKO INSTALAZIOAK

4. Ura hornitzeko instalazioek ura eraginkortasunez erabiltzeko gailuak izan beharko dituzte; zehazki, tresnen arabera, honako gutxieneko eraginkortasun hauek bermatu beharko dira:

- Komunek deskarga bikoitzagatik edo deskarga eteteagatik aurrezteko sistemak izan beharko dituzte. Nolanahi ere, gehieneko deskarga ez da 4 litrotik gorakoa izango.
- Fluxometroak dituzten komunek pultsadore bikoitza eta 8 litrotik beherako deskarga izan beharko dute.
- Txorrotek aurrezteko sistemak dituzte: aireztagailuak, presio-murritzailak edo fluxu-murritzailak.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

## ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

### MATERIALAK (gehienez 7 puntu lor daitezke)

5. Azpiproduktuak, bigarren mailako lehengaiak, material birziklatuak edo berrerabiltzeko prestaketa-prozesuetatik eratorritako materialak obraren guztizkoaren gainean (pisua) % 40 baino gehiago izatea baloratuko da, lhobek "Eraikuntzan material birziklatuak erabiltzeko gidaliburuan" eta erantsitako kalkulu-tresnan<sup>12</sup> (Material birziklatuen kalkulagailua) garatutako metodologiaren arabera.

Azpiproduktuetatik, bigarren mailako lehengaietatik, material birziklatuetatik edo berrerabiltzeko prestaketa-prozesuetatik eratorritako % 5eko material gehigarri bakoitzeko 2 puntu emango dira, zehaztapen tekniko gisa ezarritako % 40aren gainean (10 puntu, gehienez).

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

### KONPONBIDE INDUSTRIALIZATUAK (gehienez 4 puntu lor daitezke)

6. Baloratuko da eskaintzan jasotzea proiektuan sar daitezkeen eraikuntza-soluzio industrializatuen deskribapena, baldin eta obren eta egin beharreko eraikinaren ekoeraginkortasuna hobetzen badute. Horri buruzko erabakiak finkatzeko, "Euskadiko eraikuntza industrializatu jasangarriaren gidan" jasotako metodologia erabiltzea gomendatzen da.

Proposaturiko irtenbide bakoitzeko puntu 1 emango da. Gehienez ere 4 puntu.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

### ERAIKINA KUDEATZEA (gehienez 4 puntu lor daitezke)

7. Eraikineko energia- eta ur-kontsumoen jarraipena egitea ahalbidetuko duten konponbideak sartzea baloratuko da. 5 puntu emango dira gehienez eskaintzan erabiliko den sistemaren deskribapena eta kontrolatu ahal izango diren azpisistemen deskribapena sartuz gero (adibidez, klimatizazioa, aireztapena, argiztapena, indarra, komunikazio bertikala, etab.).

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

## EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Enpresaren konpromisoa eta neurriaren xehetasuna.

<sup>12</sup> Gida hori, prestatzen ari den beste honengatik ordeztxuko da: "Euskadiko ingurumen administrazioaren legea betetzeko gida: Bigarren mailako materialak sartzea obren kontratazioan". Prest dagoenean, eskuragarri egongo da lhoberen webguneko argitalpenen atalean, [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus).

## ERAIKUNTZA-OBRA GAUZATZEA

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Eraikuntza-obra berriak edo eraikinen birgaikuntzak gauzatzean ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Obrek irauten duten bitartean ingurumen-eragina murriztea.
- Obraren zehar ingurumen-alderdien jarraipena eta kontrola egitea.
- Obra gauzatzean hondakinak kudeatzea.

Obrak gauzatzean sartu beharreko ingurumen-kontsiderazioen erreferentzia gisa Eraikuntza eta Birgaitze Iraunkorrerako Gidak kontsulta daitezke.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da eraikuntza-obrak gauzatzeko zerbitzua kontratatzea, egikaritze-proiektuaren arabera eta ingurumena babesteko neurriak aplikatuta, bai materialetan eta produktuetan, bai obraren kudeaketan.

### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

#### BIGARREN MAILAKO MATERIALA

1. Obra gauzatzean, berritu behar da obraren guztizkoaren gainean (pisua) erabiltzen diren azpi produktuak, bigarren mailako lehengaiak, material birziklatuak edo berrerabiltzeko prestaketa-prozesuetatik datozen materialak % 40<sup>13</sup> direla.

Obra bukatzean, enpresa esleipendunak bigarren mailako materialaren benetako ehunekoa kalkulatu behar du obraren guztizkoaren gainean, lhobek "Eraikuntzan material birziklatuak erabiltzeko gidaliburuan" eta erantsitako kalkulu-tresnan<sup>14</sup> (Material birziklatuen kalkulagailua) garatutako metodologiaren arabera. Kalkulu hori zuzendaritza fakultatiboak berrikusi beharko du obraren egikaritze-fasean.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

#### INGURUMENA KUDEATZEKO PLANA

2. Enpresa lizitatuak Ingurumena Kudeatzeko Plan bat egingo dute; bertan, lizitatuak obrak gauzatzearen ondoriozko eraginak murrizteko ezarriko dituen neurriak zehaztuko ditu. Planak, gutxienez, honako elementu hauek jasoko ditu:
  - Hondakinen prebentzioa eta kudeaketa egokia, arriskuaren arabera (geldoak, ez-arriskutsuak eta arriskutsuak) eta azken kudeaketa-estrategiaren arabera (prebentzioa, berrerabilpena, birziklatzea), hondakinak kudeatzeko planaren arabera.
  - Uraren, energiaren eta erregaien kontrola eta zentzuzko kontsumoa.
  - Atmosferara ahalik eta emisio gutxien egitea (ibilgailuen eta makinen hautsa, CO<sub>2</sub> eta bestelako errekontza-gasak, usainak, argi-kutsadura, etab.).
  - Zaratak murriztea (indusketa-lanetan, makina astunak erabiltzen diren lanetan, zamalanetan, obrako makina txikiak erabiltzen diren lanetan, etab.).
  - Lurzorua, landaredia, fauna, paisaia eta lotutako ingurumen-zerbitzuak babestea.

<sup>13</sup> Bigarren mailako materialen % 40aren aplikazio-atalaseak Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 84. artikuluan du lege-ainguraketa.

<sup>14</sup> Gida hori, prestatzen ari den beste honengatik ordeztuko da: "Euskadiko ingurumen administrazioaren legea betetzeko gida: Bigarren mailako materialak sartzeko obraren kontratazioan". Prest dagoenean, eskuragarri egongo da lheren webguneko argitalpenen atalean, [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus).

- Inguruan eta obraren beraren baitan ahalik eta eragozpen gutxien egoteko hartutako mugikortasun-neurriak.
- Langileen prestakuntza espezifikoa, arestian aipatutako alderdiak kontuan izan ditzaten.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

#### HONDAKINAK KUDEATZEKO PLANA

3. Hondakinak Kudeatzeko Planak justifikatu egin beharko du hondakinak kudeatzeko azterketako aurrekontuari begira egindako edozein aldaketa, eta bertan ezarritako helburuak eta neurriak betetzen direla bermatu beharko du.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

### EGIKARITZE-IRIZPIDEAK

#### OBRA EGIKARITZEAREN JARRAIPENA

4. Obrak egiten ari diren bitartean, ingurumen-jarraipena eta -kontrola egin beharko dira, eta alderdi hori obraren aldizkako jarraipen-bileren gai-zerrendan sartu beharko da.

#### ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENEN HONDAKINEN KUDEAKETA

5. Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen (EEH) kudeaketak hondakinak kudeatzeko azterketan ezarritako helburuak eta neurriak betetzen direla bermatu beharko du.

### ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

#### HONDAKINAK (gehienez 15 puntu lor daitezke)

6. Gehienez ere [15 puntu] emango dira baldin eta lizitatzailleak hondakinen kudeaketa prebenitzeko eta optimizatzeko proposatutako neurriek hondakinak kudeatzeko azterketan ezarritakoak baino irismen handiagoa badute eta "Eraikuntzako eta Eraispenerako Hondakinak Kudeatzeko Plana idazteko eta ezartzeko eskuliburuko (jardunbide egokiak)" maila aurreratuarekin bat badatoz. Hondakinak kudeatzeko azterketan agertzen ez den neurri gehigarri bakoitzagatik [puntu 1] emango da.

*Egiaztapena: Se deberá aportar el aval 1 (ver Documentación de Egiaztapena).*

### EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Enpresaren konpromisoa eta neurriaren xehetasuna.

## URBANIZAZIO-PROIEKTUA

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Urbanizazio-proiektu berrietan ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Hondakinen balorizazioa maximizatzeko kudeaketa-azterketa egitea.
- Ingurumenaren aldetik hobeak diren produktuak eta materialak erabiltzea (in-situ berrerabiltzeagatik, jatorri berriztagarrikoak, birziklatuak, birziklagarriak, substantzia toxikorik gabekoak, etab.).
- Berdeguneak maximizatzea eta naturan oinarritutako irtenbideak.

Urbanizazio-proiektuan sartu beharreko ingurumen-kontsiderazioen erreferentzia gisa Urbanizazio eta Berrurbanizazio Iraunkorrerako Gidak kontsulta daitezke, hemen: <http://construccionsostenible.eus>

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da urbanizazio-proiektua idazteko eta/edo urbanizazio-proiektuaren zuzendaritza fakultatiboa egiteko zerbitzua kontratatzea.

Proiektua idazteko, eraikuntza jasangarriko printzipioak eta ekodiseinuko eta ekonomia zirkularreko printzipioak kontuan hartuko dira, ingurumena eta osasuna gehien errespetatzen dituzten produktuak, materialak eta eraikuntza-sistemak erabiltzeko, bai eta eraikuntzaren bizi-ziklo osoko eraginak murrizteko konponbideak erabiltzeko ere.

#### ZHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

##### HONDAKINAK KUDEATZEKO AZTERKETA

1. Hondakinak kudeatzeko azterketak LER-170904 kodearen % 5eko sortzeko gehieneko helburua jasoko du, eta gutxienez % 85eko balorizazio-helburua, azterketa horretan aurreikusitako hondakinen guttizkoari dagokionez.

Hondakinak kudeatzeko azterketa egiteko, honako aplikazio hau erabiliko da: EEH AURREZTEN: EGRak, PGRak eta IFGak idazten eta berrikusten laguntzeko tresna.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

##### BIGARREN MAILAKO MATERIALA

2. Proiektuak barne hartu behar du azpiproduktuen, bigarren mailako lehengaien, material birziklatuen edo berrerabiltzeko prestaketa-prozesuetatik eratorritako materialen ehunekoaren kalkulua, obraren guttizkoaren gainean, lhobek "Eraikuntzan material birziklatuak erabiltzeko gidaliburuan" eta erantsitako kalkulu-tresnan<sup>15</sup> (Material birziklatuen kalkulagailua) garatutako metodologiaren arabera.

Proiektuak, obraren guttizkoaren gainean (pisua), azpiproduktuak, bigarren mailako lehengaiak, material birziklatuak edo berrerabiltzeko prestaketa-prozesuetatik datozen materialak % 40<sup>16</sup> izango direla bermatu behar du.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

##### EGURRA ETA EGURREZKO PRODUKTUAK

3. Proiektuko egurra eta egurrezko produktuak legezko iturrietakoak izan beharko dira, eta ezingo dira Convention International Trade of Endangered Species, CITESen, jasotako espezie mehatxatuetatik etorri.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

<sup>15</sup> Gida hori, prestatzen ari den beste honengatik ordeztuko da: "Euskadiko ingurumen administrazioaren legea betetzeko gida: Bigarren mailako materialak sartzeko obraren kontratazioan". Prest dagoenean, eskuragarri egongo da Ihoberen webguneko argitalpenen atalean, [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus).

<sup>16</sup> Bigarren mailako materialen % 40aren aplikazio-atalaseak Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 84. artikuluan du lege-ainguraketa.

## ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

**URA: Biltzea eta berrerabiltzea (gehienez 5 puntu lor daitezke)**

4. Euri-ura biltzeko eta berrerabiltzeko proposamenak baloratuko dira; edozein erabilerarako (ureztatzea, garbiketa, etab.) birziklatutako euri-uraren ehuneko [% 10] bakoitzeko [puntu 1] balioetsiko da. Gehienez ere [5 puntu] lor daitezke.

Ehuneko hori kalkulatzeko, proposatutako sistemaren bilketa- eta berrerabilpen-potentziala kalkulatu da, obra ezarriko den eremuko batez besteko plubiometria kontuan hartuta. Enpresa eskaintzaileek, egiaztagiri gisa, urteko prezipitazioen eta birziklatze bolumenaren balioztapena aurkeztu beharko dute.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

**URA: Iragazkortasuna (gehienez 5 puntu lor daitezke)**

5. Zolatutako azalera iragazkortzeko proposamenak baloratuko dira, eta [puntu 1] emango da azalera iragazkorren ehuneko [% 10] bakoitzeko, zolatutako azalera osoaren gainean. Gehienez [5 puntu] lor daitezke.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

**EKOSISTEMAK (gehienez 5 puntu lor daitezke)**

6. Berdeguneak edo lorategiak balio-bizitzan zehar zaindu eta maximizatzen dituzten konponbideak baloratuko dira. Honako hauek sustatuko dira:

- berdeguneak ahalik eta gehien naturalizatzeko konponbideak erabiltzea; horretarako, klimara egokitutako espezie autoktonoak erabiliko dira
- sasoiko loreen erabilera murriztea
- espazioaren diseinua funtzioaren arabera justifikatzea, betiere kontuan hartuta eremuaren baldintzak (intsolazioa, lurzorua kalitatea, malda, etab.), landarediaren etapa guztiak (landatzea, haztea eta mantentzea) eta urtean zehar egin beharreko lanak (moztea, ureztatzea, hostoak biltzea, inaustea, etab.).
- materia organikoa berriz sartzeko konponbideak.
- naturan oinarritutako irtenbideak

[Puntu 1] emango da aipatutako alderdiei mesede egiten dien eta lehendik zegoen berdegunea handiagotzea lortzen duen konponbide bakoitzeko. Gehienez [5 puntu] lor daitezke.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

## EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Enpresaren konpromisoa eta neurriaren xehetasuna.

## URBANIZAZIO-OBRA GAUZATZEA

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Urbanizazio-proiektu berriak gauzatzean ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Obrek irauten duten bitartean ingurumen-eragina murriztea.
- Obran zehar ingurumen-alderdien jarraipena eta kontrola egitea.
- Obra gauzatzean hondakinak kudeatzea.

Urbanizazio-obrak gauzatzean sartu beharreko ingurumen-kontsiderazioen erreferentzia gisa Urbanizazio eta Berrurbanizazio Iraunkorrerako Gidak kontsulta daitezke, hemen: <http://construccionsostenible.eus>.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da urbanizazio-obrak gauzatzeko zerbitzua kontratatzea, egikaritze-proiektuaren arabera eta ingurumena babesteko neurriak aplikatuta, bai materialetan eta produktuetan, bai obren kudeaketan.

#### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

##### BIGARREN MAILAKO MATERIALA

1. Obra gauzatzean, bermatu behar da obraren guztizkoaren gainean (pisua) erabiltzen diren azpiproduktuak, bigarren mailako lehengaiak, material birziklatuak edo berrerabiltzeko prestaketa-prozesuetatik datozen materialak % 40<sup>17</sup> direla.

Obra bukatzean, enpresa esleipendunak bigarren mailako materialaren benetako ehunekoa kalkulatu behar du obraren guztizkoaren gainean, lhobek "Eraikuntzan material birziklatuak erabiltzeko gidaliburuan" eta erantsitako kalkulu-tresnan<sup>18</sup> (Material birziklatuen kalkulagailua) garatutako metodologiaren arabera. Kalkulu hori zuzendaritza fakultatiboak berrikusi beharko du obraren egikaritze-fasean.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

##### INGURUMENA KUDEATZEKO PLANA

2. Enpresa lizitatzailleek Ingurumena Kudeatzeko Planaren aurrerapena erantsiko dute; bertan, lizitatzailleak obrak gauzatzearen ondoriozko eraginak murrizteko ezarriko dituen neurriak zehaztuko ditu. Planak, gutxienez, honako elementu hauek jasoko ditu:
  - Hondakinen prebentzioa eta kudeaketa egokia, arriskuaren arabera (geldoak, ez-arriskutsuak eta arriskutsuak) eta azken kudeaketa-estrategiaren arabera (prebentzioa, berrerabilpena, birziklatzea), hondakinak kudeatzeko planari jarraiki.
  - Uraren, energiaren eta erregaien kontrola eta zentzuzko kontsumoa.
  - Atmosferara ahalik eta emisio gutxien egitea (ibilgailuen eta makinaren hautsa, CO<sub>2</sub> eta bestelako errekontza-gasak, usainak, argi-kutsadura, etab.).
  - Zaratak murriztea (indusketa-lanetan, makina astunak erabiltzen diren lanetan, zamalanetan, obrako makina txikiak erabiltzen diren lanetan, etab.).
  - Lurzorua, landaredia, fauna, paisaia eta lotutako ingurumen-zerbitzuak babestea.
  - Inguruan eta obraren beraren baitan ahalik eta eragozpen gutxien egoteko hartutako mugikortasun-neurriak.

<sup>17</sup> Bigarren mailako materialen % 40aren aplikazio-atalaseak Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 84. artikuluan du lege-ainguraketa.

<sup>18</sup> Gida hori, prestatzen ari den beste honengatik ordeztuko da: "Euskadiko ingurumen administrazioaren legea betetzeko gida: Bigarren mailako materialak sartzeko obraren kontratazioan". Prest dagoenean, eskuragarri egongo da lhoberen webguneko argitalpenen atalean, [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus).

- Langileen prestakuntza espezifikoa, arestian aipatutako alderdiak kontuan izan ditzaten.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

#### HONDAKINAK KUDEATZEKO PLANA

3. Hondakinak kudeatzeko planak justifikatu egin beharko du hondakinak kudeatzeko azterketako aurrekontuari begira egindako edozein aldaketa, eta bertan ezarritako helburuak eta neurriak betetzen direla bermatu beharko du.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

### EGIKARITZE-IRIZPIDEAK

#### OBRA EGIKARITZEAREN JARRAIPENA

4. Obrak egiten ari diren bitartean, ingurumen-jarraipena eta -kontrola egin beharko dira, eta alderdi horiek modu normalizatuan sartu beharko dira obraren aldizkako jarraipen-bileren gai-zerrendan.

#### ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENEN HONDAKINEN KUDEAKETA

5. Eraikuntza- eta eraispene-hondakinen (EEH) kudeaketak hondakinak kudeatzeko azterketan ezarritako helburuak eta neurriak betetzen direla bermatu beharko du.

### ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

#### HONDAKINAK (gehienez 15 puntu lor daitezke)

6. Gehienez ere [15 puntu] emango dira baldin eta lizitatzailleak hondakinen kudeaketa prebenitzeko eta optimizatzeko proposatutako neurriek hondakinak kudeatzeko azterketan ezarritakoak baino irismen handiagoa badute eta "Eraikuntzako eta Eraispeneko Hondakinak Kudeatzeko Plana idazteko eta ezartzeko eskuliburuko (jardunbide egokiak)" maila aurreratuarekin bat badatoz. Hondakinak kudeatzeko azterketan agertzen ez den neurri gehigarri bakoitzagatik [puntu 1] emango da.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

### EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Enpresaren konpromisoa eta neurriaren xehetasuna.



## INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Energia elektrikoaren kontratazioan ingurumen-irizpideak sartzeko, energia elektrikoaren jatorria izan beharko da ardatz, eta energia elektrikoak ahalik eta ingurumen-eragin txikiena izan beharko du. Horretarako, energia iturri berriztagarrietatik sortu beharko da.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea energia elektriko hornitzea da, [zehaztu kontsumo-puntuak]-(r)en eskariari erantzuteko, zeinaren titularra [erakunde kontratatzailea] baita.

Kontratazio honek sortutako energia elektrikoaren % 100 energia-iturri berriztagarrietatik eskuratzea aurreikusten du.

#### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

##### ENERGIAREN JATORRIA


- Hornitutako elektrizitatearen % 100 energia-iturri berriztagarrietatik sortutakoa izango da.

#### EGIKARITZE-IRIZPIDEAK

- Kontratuak irauten duen bitartean, merkaturatutako energiaren jatorria (merkaturatzaileak jatorri berriztagarriko energia soilik saltzen badu), edo administrazioak kontsumitutako energiaren jatorria egiaztatu beharko da (merkaturatzaileak jatorri berriztaezineko beste energia batzuk saltzen baditu), honako abal hauen bidez: 1, 2, 3, 4 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

#### EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

- Energia-etiketa (2/2021 Zirkularraren arabera)




- OK power ekoetiketa



- EKO energy ekoetiketa



- Naturemade ekoetiketa





## INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Inprimatze-ekipoak erostean ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Ekipoek papera zentzuz erabiltzeko aukera eman behar dute.
- Ekipoek tonerrak arrazoiz erabiltzeko aukera eman behar dute, eta bakoitza bere aldetik ordezkatzeko aukera eman behar dute.
- Kontsumo energetikoa.
- Substantzia kaltegarrien emisioak mugatzea.

## INGURUMEN-IRIZPIDEAK

### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea [inprimagailuak, fotokopiagailuak edo inprimagailu funtzioaniztunak] eskuratzea da, horiek [erosteko, erosteko aukerarekin alokatzeko edo erosteko aukerarik gabe alokatzeko].

Lan-osasuna zaintzeko eta ingurumen-eraginak murrizteko, ekipoek ingurumen-kalitatezko gutxieneko irizpide batzuk bermatu beharko dituzte. Gainera, hornidura-zerbitzua ere ingurumena errespetatuz egin beharko da.

## ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

### FORMATUA ETA EZAUGARRI OROKORRAK

1. Ekipoek bi aldeetatik automatikoki inprimatzeko aukera izango dute (duplex funtzioa-lehentasunez konfiguraturua), eta orrialde bakoitzeko 2 orrialde edo gehiago inprimatzeko.

Ekipoek % 100 birziklatutako kalitatezko papera erabili beharko dute.

[Koloreak darabiltzaten ekipoen kasuan], Koloretako kartutxoak/tonerrak bereiz aldatu ahal izango dira.

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzeko honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da irizpide bakoitzeko, hurrenez hurren (ikus egiaztapen-dokumentazioa):

- Bi aldeetatik inprimatzea: 4, 5 edo 6
- % 100 birziklatutako papera: 2, 4, 5, 6 edo 7
- Kartutxoak/tonerra aldatzea: 2, 5 edo 6

### EKIPO GUZTIEN ENERGIA-KONTSUMOA

2. Eskainitako ekipo guztiek, gutxienez, Energy Star estandarrean (Imaging equipment, 3.0 bertsioa, 2019) edo estandar baliokidean definitutako energia-eraginkortasuneko baldintzak betetzen dituzte. TEC kontsumoari buruzko informazioa ez da gutun-azal honetan sartu beharko, adjudikazio-irizpide bat baita.

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1, 2, 4, 5 edo 6 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

### BERRIZ MANUFATURATUTAKO TONERRAK/KARTUTXOAK ERABILTZEA

3. Ekipoek berriz manufaturatutako tonerrak/kartutxoak erabiltzea onartuko dute; hala ere, horiek erabiltzea ezin izango da ekipamenduaren berme- eta konponketa-betebeharra kaltetzen duen alderdi gisa argudiatu.

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 2, 3, 5 edo 6 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

**SUBSTANTZIA KALTEGARRIAK ISURTZEA**

4. Substantzia kaltegarrien isuriek ez dituzte honako balio hauek gaindituko, Aingeru Urdina ekoetiketan (Office Equipment with Printing Function, DE-UZ 219 (2021) edo baliokidean) zehaztutako prozeduraren arabera:

Substantzia	Gutzizko isurpenak prestaketa- eta inprimaketa-faseetan (mg/h)	
	Ekipoak (kolorebakarrak)	Koloreak darabiltzaten ekipoak
COVT (konposatu organiko lurrunkorrek guztira)	10	18
Bentzenoa	< 0,05	< 0,05
Estirenoa	1,0	1,8
Ozonoa (laser-ekipoak soilik)	1,5	3,0
Hautsa (laser-ekipoak soilik)	4,0	4,0

*Egiaztapena: Proposamenen sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 2, 3, 4, 5 edo 6 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

**EGIKARITZE-IRIZPIDEAK (nahitaez bete beharrekoak)****JARRAIPENA**

5. Enpresa esleipendunak, kontratuaren urte bakoitzaren amaieran, Excel taula bat aurkeztu beharko du, urte osoan zehar egindako ikustaldi eta mantentze-lanen kopurua eta ekipo eta inprimaketa-mota bakoitzeko kopien (orrien) gutzizko kopurua jasotzen dituen.

**GARRAIO-ENBALAJE BERRERABILGARRI, BIRZIKLAGARRI ETA/EDO BIRZIKLATUA**

6. Produktuak hornitzeko, kaxa berrerabilgarriak (enpresa esleipendunak hurrengo entregan berreskuratuko ditu), birziklagarriak eta/edo bigarren mailako materialak erabiliko dira.

**ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK****ENERGIA-KONTSUMOA (gehienez 15 puntu lor daitezke)**

7. Ekipoek energia-kontsumo txikia izatea baloratuko da (gehienez 15 puntu):
- [errendimendu handiko laser- eta tinta-ekipoetarako] TEC kontsumoa (kWh/aste)
  - [ohiko tinta-ekipoetarako] "Sleep" eta "stand-by" aukeretan duen potentzia (W)

*Egiaztapena: Proposameneko produktu bakoitzaren TECa adierazi beharko da (kWh/aste neurria erabilita), edo, bestela, "sleep" eta "stand-by" aukeretan duen potentzia, ekipo-motaren arabera. Kasu bakoitzerako, honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 4, 5 edo 6 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

**EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA**

1. Energy Star ziurtagiria		5. Fitxa edo eskuliburu teknikoa
2. Ekipoko Aingeru Urdina ekoetiketa		6. Fabrikatzailearen adierazpena
3. Ekipoko Beltxarga Nordikoa ekoetiketa		7. Lizitatzaileren adierazpena
4. The Eco Declaration-TED		



## INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Ekipo informatikoak erostean ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Kontsumo energetikoa.
- Enbalajeak eta ekipo zaharkituak kudeatzea.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da ekipo informatikoak erostea [mahai gaineko ordenagailuak, pantailak, eta/edo ordenagailu eramangarriak].

Lan-osasuna zaintzeko eta ingurumen-eraginak murrizteko, ekipoek ingurumen-kalitatezko gutxieneko irizpide batzuk bermatu beharko dituzte. Gainera, hornidura-zerbitzua ere ingurumena errespetatuz egin beharko da.

#### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

##### KONTSUMO ENERGETIKOA

1. Eskaintzen diren ekipo guztiek (pantailek, mahai gaineko ordenagailuek eta ordenagailu eramangarriek), gutxienez, Energy Star programan edo baliokidean definitutako energia-eraginkortasunaren baldintzak bete behar dituzte (Computers, 8.0 bertsioa / Monitors, 8.0 bertsioa edo geroagokoak). Urteko ohiko kontsumoari buruzko informazioa (ETEC) ez da gutun-azal honetan sartu beharko, adjudikazio-irizpide bat baita.

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: (ikus egiaztapen-dokumentazioa)

Ordenagailuak: 1, 2 eta 3 Pantailak: 1

#### EGIKARITZE-IRIZPIDEAK (nahitaez bete beharrekoak)

##### HONDAKINAK

2. Enpresa esleipendunak gaika bereiziko ditu ekipoak instalatzean sortutako enbalaje-hondakinak, eta kontratatzaileak zehaztutako edukiontzietan utziko ditu, behar bezala birziklatzeko. Gainera, kontratatzaileak hala eskatzen dionean, ekipo zaharkituak eta haien osagaiak doan kenduko ditu.

##### GARRAIO-ENBALAJE BERRERABILGARRI, BIRZIKLAGARRI ETA/EDO BIRZIKLATUA

3. Produktuak hornitzeko, kaxa berrerabilgarriak (enpresa esleipendunak hurrengo entregan berreskuratuko ditu), birziklagarriak eta/edo bigarren mailako materialak erabiliko dira.

#### ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

##### ENERGIA-KONTSUMOA (gehienez 15 puntu lor daitezke)

4. Ekipoek urteko ohiko kontsumo (ETEC) txikia izatea baloratuko da.

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 2 edo 3 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

#### EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Energy Star ziurtagiria



3. Fitxa teknikoa

2. The Eco Declaration-TED





## INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Ekitaldiak kontratatzean ingurumen-irizpideak sartzeko, batez ere honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Jardunaldia egingo den lekura joateko garraio publikoa irisgarria izatea.
- Material berrerabilgarria eta/edo material berrerabilia erabiltzea.
- Catering-zerbitzu jasagarria ziurtatzea (elikadurari buruzko kategorian, eskuragarri daude cateringa kontratatzeko ingurumen-irizpide zabalduak).

## INGURUMEN-IRIZPIDEAK

### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da idazkaritza teknikoak kontratatzea, ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izango duten ekitaldiak kudeatu ditzan. Horretarako, murriztu egingo dira hondakinen sorrera, energia- eta ur-kontsumoa eta ekitaldian kontsumitutako produktuen ekoizpenarekin lotutako bestelako eraginak.

### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

[Oharra: kategoria honek askotariko zereginak biltzen dituenez eta/edo mota honetako kontratazioek irismen handia izan dezaketenez, irizpide orokor batzuk ezarri dira. Hala ere, lizitazio honen xedea zeregin/zerbitzu espezifikoaren bat kontratatzea bada, irizpide espezifikoagoak aurki daitezke eranskin honetako beste atalen batean edo lhoberen webguneko irizpideetan].

**1. AUKERA:** Lehenengo aukera da ekitaldiak ekitaldi jasagarriko ziurtagiriren batean ezarritako ingurumen-irizpideak betetzen dituela ziurtatzea. Aukera horrek bermatzen du ekitaldian bertan ingurumen-irizpideak modu integralagoan eta zeharkakoagoan txertatzea. Hala ere, kontuan izan behar da laguntza teknikoak baliabide gehiago behar izan ditzakeela irizpideak aplikatzeko.

#### EKITALDI ZIURTATUA

1. Ekitaldiak ekitaldi-ziurtagiri iraunkorren bat lortzeko irizpideak betetzen dituela bermatuko da. Irizpide horiek, gutxienez, mugikortasunari, ekitaldian erabilitako materialei eta catering-zerbitzuari buruzko irizpideak jaso beharko dituzte.

*Egiaztapena:* Honako abal hau aurkeztu beharko da: 4 edo baliokidea (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

**2. AUKERA:** Bigarren aukera ekitaldian honako alderdi hauei buruzko irizpide espezifikoak sartzea da:

#### MUGIKORTASUN-NEURRIAK

2. Gertuen dauden garraio publikoko geltoki edo geralekuen berri emango da eta seinaleztatu egingo dira.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 2 eta 3 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

#### EKITALDIAN ERABILITAKO MATERIALAK

3. Txostenek edo eman beharreko dokumentuek ahalik eta edukirik gutxien izan beharko dute (programa, gogobetetze-inkesta), eta, ahal den neurrian, paperean inprimatzea saihestuko da. Dokumentazioa euskarri informatikoetan jarri beharko da parte-hartzaileen eskura, webgunearen bidez edo beste aukera batzuen bidez (hala nola, APPak), interesdunek deskargatzeko eta ikusteko.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 2 eta 3 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

4. Materialak eskura eman behar izanez gero (dosierak, boligrafoak, etab.), ingurumen-irizpideren bat bete beharko dute (material berrerabilgarriak, paper/plastiko birziklatua, plastiko biodegradagarria, FSC edo PEFC papera edo egurra...).

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 2 eta 3 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

## KONTRATAZIOA ETA CATERING-ZERBITZUA

5. Beharrezko janaria kontu handiz planifikatu behar da, behar ez diren hondakin ahalik eta gutxien sortzeko. Horretarako, izen-emateko inprimakia erabil daiteke, edo ekitaldiaren harreran izena emateko eskatu.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 2 eta 3 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

6. Zerbitzu guztietako osagaien pisuaren % 10 gutxienez nekazaritza ekologikotik datozen osagaiak izango dira, 2018/848 (EB) Erregelamenduari edo ondorengo bertsioei jarraiki.

Ebaluatzeko, zerbitzu bakoitzeko menu-proposamena aurkeztu beharko da, I. eranskinean jasotako informazio guztia zehaztuz.

*Egiaztapena:* Honako abal hau aurkeztu beharko da: 5 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

7. Ura etxekoa izango da eta pitxerretan zerbitzatuko da. Ez da inoiz ontzietan zerbitzatuko.

*Egiaztapena:* Honako abal hauek aurkeztu beharko dira: 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

8. [Jai-ekitaldiak ez badira] Baxera, beirateria, mahai-tresnak eta mahai-zapiak berrerabilgarriak izango dira (kristala, porzelana, metala, oihala).

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

## Kontratua EGIKARITZEA (nahitaez bete beharrekoak)

### HONDAKINEN KUDEAKETA

9. Ekitaldian, sortutako hondakinak behar bezala bereiziko dira, eta, ondoren, behar bezala kudeatuko direla bermatuko da.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 2 eta 3 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

### GARRAIO-ENBALAJE BERRERABILGARRI, BIRZIKLAGARRI ETA/EDO BIRZIKLATUA

10. Ekitaldian entregatu beharreko materialen kasuan, produktuak hornitzeko kaxa berrerabilgarriak (enpresa esleipendunak hurrengo entregan berreskuratuko ditu), eta/edo bigarren mailako materialak erabiliko dira.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1 eta 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

## ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

### MUGIKORTASUN-NEURRI GEHIGARRIAK (gehienez 7 puntu lor daitezke)

11. Lekualdaketetarako autobus-zerbitzua kontratatuz gero, ibilgailuak ordezko erregairen bat erabiltzea baloratuko da [elektrizitatea/hidrogenoa/bioerregaiak/gas naturala edo petrolio-gas likidotua (PGL); erakunde kontratatzaileak aukeratuko du teknologiarik egokiena, ibilgailu motaren arabera].

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 6 eta 7 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

### CATERING-ZERBITZURAKO NEURRI GEHIGARRIAK (gehienez 8 puntu lor daitezke)



12. Nekazaritza ekologikoko produktuen ehuneko ahalik eta handiena (pisuaren arabera) izatea baloratuko da (aurreko definizioaren arabera, 4 puntu gehienez).

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 5 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

13. [Jai-ekitaldietan] Baloratuko da baxera, beirateria eta mahai-tresnak biodegradagarriak eta konpostagarriak izatea, EN 13432 arauari edo baliokideei jarraiki (janari-hondarrekin batera biltzeko); edo, bestela, berrerabilgarriak izatea; kasu horretan, enpresa esleipendunak gordailu-itzulera sistema bat antolatu beharko du, mailegatutako produktuak berreskuratuzeko (gehienez 4 puntu).

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1 eta 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

## EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Fitxa teknikoa	5. Ekoizlearen nekazaritza ekologikoko ziurtagiria edo produktuaren etiketa (ontziratuta badago) 
2. Adierazpena	6. Ibilgailuaren dokumentazio teknikoa
3. Proposamenaren deskribapen teknikoa	7. DGTko etiketa
4. Erronka Garbia ziurtagiria 	

## I. ERANSKINA: menua eta proposatutako elikagaien eta edarien ezaugarriak

Memorian, zerbitzu mota (gosaria, bazkaria, atsedenaldea-kafea, afaria) eta data zehaztu beharko dira. Zerbitzu bat baino gehiago kontratatzen bada, zerbitzu bakoitzerako taula bana bete beharko da. Taula bakoitzean, zerbitzuan erabiliko diren produktu adina lerro gehituko dira.

1. zerbitzua: Zehaztu

PLATERRA	PREZIOA	OSAGAIA (gramoak)	ENPRESA EKOIZLEA	URTE- SASOIKOA	BETETZEN DITUEN IRIZPIDEAK:				
				BAI/ EZ/ ez da aplikatzen	NE	EI	AO	AI	IA
					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

**NE**= nekazaritza ekologikoa, **EI**= ekoizpen integratua, **AO**= animalien ongizatea, **AI**= arrantza jasangarria, **IA**= itsasertzeko arrantza edo belarjalea.



## INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Lorezaintza eta berdeguneen kontratazioan ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Ongarritzeko, izurriteak kontrolatzeko eta gaixotasunak tratatzeko substantzia kimikoak erabiltzeari lotutako ingurumen-eragina murriztea.
- Eremuko baldintza klimatikoetara egokitutako landareak aukeratzea.
- Erabiltzen diren ibilgailuen flotaren ingurumen-eragina.
- Hondakinak kudeatzea.

## INGURUMEN-IRIZPIDEAK

### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da berdeguneak mantentzeko lorezaintza-zerbitzua kontratatzea. Zerbitzua ingurumena gehiago zaintzen duten metodo, praktika eta produktuekin gauzatuko da.

### KAUDIMEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

1. Koordinatzaile bat izatea. Koordinatzaile horrek zerbitzuarekin lotutako lorezaintza jasangarrian prestakuntza izan beharko du.

*Egiaztapena:* Koordinatzailearen CVA.

### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

#### ONGARRIAK

2. Ongarri kimikoak erabiltzea administrazioak zehaztutako eremuetara mugatuko da. Gainerako eremuetan, lurzorua kalitate fisikoa eta kimikoa hobetzeko konposta edo konpostean aberatsak diren lur-medegarriak erabiliko dira.

*Egiaztapena:* Honako abal hau aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

#### LANDAREEN IZURRITEAK ETA GAIXOTASUNAK KONTROLATZEA

3. Produktu bioziden edo fitosanitarioen erabilera gutxitzeko, baina berdeguneetako landarediaren osasuna bermatzeko, enpresa lizitatzailerak izurriteak kontrolatzeko plan integral bat aurkeztu beharko du, arazo bakoitzari emango dion tratamendua zehaztuta (prebentiboa, mekanikoa, termikoa, biologikoa). Plana kontratuak iraun bitartean aplikatuko da.

*Egiaztapena:* Honako abal hau aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

#### LANDAREAK AUKERATZEA

4. Administrazioak urtean zehar sasoiko landareak erosteko eskatuko du, edo dauden landareak inguruko klima-baldintzetara hobeto egokitutako beste batzuekin ordezkatzeko eskatuko du.

*Egiaztapena:* Honako abal hau aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

#### IBILGAILUAK

5. Zerbitzurako proposatutako turismo-ibilgailu edo merkataritza-ibilgailu arinen flotak EURO 5 arauan ezarritako batez besteko errekontza-gas emisioak izan beharko ditu.

*Egiaztapena:* Honako abal hau aurkeztu beharko da ibilgailu bakoitzeko: 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

#### MAKINERIA

6. Makinei dagokienez, enpresa lizitatzailerak materia organikoa eta egurrezko materiala txikitzeko birringailu eramangarri bat izan beharko dute, material bigungarria edo mulchinga in situ egiteko. Materiala administrazioak zehaztutako gunetan banatuko da.

*Egiaztapena:* Honako abal hauek aurkeztu beharko dira: 1 eta 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

## EGIKARITZE-IRIZPIDEAK (obligatorio cumplimiento)

### GAIKAKO BILKETA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA

7. Enpresa esleipendunak sortutako hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatu behar du. Hau da:
- Material bigungarria egiteko erabiltzen ez den materia organikoa in situ konpostatuko da, enpresaren instalazioetan edo baimendutako instalazioren batean, erabakitakoaren arabera. Ontziak eta hondakin ez-arriskutsuak hiriko gaikako bilketarako edukiontzietan botako dira, eta gaika bereiziko dira.
  - Produktu arriskutsuen ontziak eta bestelako hondakin arriskutsuak (olio lubrifikatzaileak, adibidez) bereiz bilduko dira eta kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu.

## ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

### IZURRITEEN PLAN INTEGRALA (gehienez 10 puntu lor daitezke)

8. Izurriteen plan integralaren kalitatea baloratuko da, bereziki produktu bioziden edo fitosanitarioen gutxieneko erabilerari dagokionez.

*Egiaztapena:* Honako abal hau aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

### ONGARRIAK ETA MEDEAGARRIAK (gehienez 3 puntu lor daitezke)

9. Baloratuko da konpostak eta lur-medegarriek Europar Batasuneko etiketa ekologikoaren edo baliokidearen konposizio- eta substantzia-irizpideak betetzea.


*Egiaztapena:* Honako abal hau aurkeztu beharko da produktu bakoitzeko: 4 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

### IBILGAILUAK (gehienez 2 puntu lor daitezke)

10. Baloratuko da zerbitzurako proposatutako turismo-ibilgailu edo merkataritza-ibilgailu arinen flota ibilgailu elektriko edo hibrido entxufagarri osatuta egotea (flotaren % 100 bada, gehienez 2 puntu lor daitezke; flotaren % 50 eta % 100 artekoa bada, gehienez puntu 1 lor daiteke).

*Egiaztapena:* Honako abal hau aurkeztu beharko da ibilgailu bakoitzeko: 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

## EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Txosten teknikoa	3. Segurtasun-fitxa	
2. Fitxa teknikoa	4. Europar Batasuneko etiketa ekologikoa edo baliokidea	 ...



## INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Eraikinen garbiketaren kontratazioan ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Hainbat garbiketa-produktu erabili ezin direla, ingurumen-arrazoiengatik.
- I. motako ekoetiketaren baten eskakizunak betetzen dituzten garbiketa-produktuak erabiltzea, osagai toxiko gutxiagoko produktuak erabiltzen direla ziurtatzeko.
- Jatorri birziklatuko produktuak lehenestea.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da administrazioaren eraikinak garbitzeko zerbitzua kontratatzea. Zerbitzua ingurumena eta lan-osasuna gehiago zaintzen duten metodo, praktika eta produktuekin gauzatuko da, eta, besteak beste, hondakinak behar bezala kudeatuko dira, eraikinean/eraikinetan dagoen gaikako banatze sistema mantenduta.

#### AUKERATZEKO IRIZPIDEAK (nahitaez bete beharrekoak)

1. Koordinatzaile bat izatea. Koordinatzaile horrek zerbitzuarekin lotutako garbiketa-metodoei eta ingurumen-alderdiei buruzko prestakuntza izan beharko du.

*Egiaztapena:* Koordinatzailearen CVA.

#### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

##### GARBIKETA-PRODUKTUAK

2. Debehatuta dago honako hauek erabiltzea:

- aire-freskagarriak
- pixalekuetan lurrindutako pilulak edo substantziak erabiltzea
- gas propulsatzaileak dituzten lurruneztigailuak
- garbiketa orokorrerako desinfektatzaileak edo desinfektatzaileak dituzten produktuak erabiltzea (lixiba, adibidez), komunetan eta zehaztutako gainazaletan izan ezik.

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hau aurkeztu beharko da: 6 eta 8 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

3. Normalean erabiltzen diren 3 garbiketa-produktuek -hau da, erabilera anitzeko garbigarriak, kristal-garbigarriak eta komun-garbigarriak- I. motako ekoetiketaren baten baldintzak beteko dituzte, hala nola, Europar Batasuneko etiketa ekologikoa, Beltxarga Nordikoa edo baliokidea, produktuaren formulazioan konposatu kimikoak egoteari dagokionez.

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1, 2 eta 3 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

##### KOMUNEKO PAPERERA ETA ESKU-LEHORGAILUA

4. Komuneko paperari eta esku-lehorgailuari dagokionez, I. motako ekoetiketaren baten baldintzak beteko dituzte, hala nola, Europar Batasuneko etiketa ekologikoa, Beltxarga Nordikoa edo baliokidea, produktuaren zuntzaren jatorriari dagokionez (zuntzen % 70 baso-kudeaketa jasangarriko printzipioen arabera kudeatutako azaleretatik edo basoetatik etortzea, edo bigarren mailako materialetatik etortzea).

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1, 2, 3, 4 eta 5 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

## ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

### KOMUNeko PAPERa ETA ESKU-LEHORGAILUA (gehienez 8 puntu lor daitezke)

5. Baloratuko da komuneko paperak eta esku-lehorgailuak produktuari edo fabrikazio-kateari esleitutako zuntzen ahalik eta ehuneko handiena baso-kudeaketa jasangarriko printzipioen arabera kudeatutako azaleretatik edo basoetatik edo bigarren mailako materialetatik etortzea.

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1+6, 2+6, 3, 4+6, 5+6<sup>19</sup> (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

### GARBIKETA-PRODUKTUAK (gehienez 7 puntu lor daitezke)

6. Baloratuko da I. motako ekoetiketaren baten baldintzak betetzen dituzten garbiketa-produktuen ehuneko ahalik eta handiena erabiltzea (hala nola, Europar Batasuneko etiketa ekologikoa, Beltxarga Nordikoa edo baliokidea, produktuaren formulazioan konposatu kimikoak egoteari dagokionez).

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1, 2 eta 3 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

## EGIKARITZE-IRIZPIDEAK (nahitaez bete beharrekoak)

7. Enpresak honako hauek bermatu beharko ditu: langileek ingurumen-prestakuntza jasotzen dutela; hondakinak behar bezala kudeatzen direla, eta alde zuzenetik egindako bereizketa zuzena errespetatzen dela; ontzien etiketak zuzenak direla eta kontratuaren ingurumen-jarraipena egiten dela.
8. Kontratuaren hasieran, Prestakuntza Plana eta Hondakinak Kudeatzeko Plana aurkeztu beharko dira, hondakin arriskutsuak zein kudeatzailer baimenduri emango zaizkion zehaztuta, eta, urtero, planen jarraipen-txostena aurkeztuko da; bertan, ingurumenaren aldetik hobeak diren produktuak erosi direla egiaztatzen duten fakturak txertatuko dira.

## EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Europar Batasuneko etiketa ekologikoa		5. PEFC
2. Beltxarga Nordikoa etiketa		6. Fitxa teknikoa
3. Aingeru Urdina etiketa		7. Enpresaren adierazpena
4. FSC		8. Segurtasun-fitxa

<sup>19</sup> PEFC eta FSCei dagokienez ziurtagiri-aukera ugari daudenez, gomendatzen da, halaber, ziurtagiriaz gain produktuaren fitxa teknikoa ematea, papera osatzen duten zuntz moten ehunekoa ezagutzeko. Hala ere, zalantzarik izanez gero, Ihoberen webgunean eskuragarri dagoen "FSC eta PEFC ziurtagiriak eta kontratazio publikoan duten erabilera" argitalpena kontsulta daiteke.



## INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Mezularitza-zerbitzuen kontratazioan ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Garraiobidea aukeratzean, ingurumen-eragin txikiena duena lehenestea.
- Enbalajeak bigarren mailako materialak izatea.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da ingurumen-eragin txikiagoa izango duen kanpoko eta/edo barne-posta mezularitza-zerbitzua kontratatzea.

#### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

[Oharra: Ingurumenean eragin txikiena duten garraiobideak lehenetsiko dira, honako hurrenkeran honetan: bizikleta, motozikleta eta, azkenik, furgoneta.]

#### HIRI-MEZULARITZA

1. Kontratatzailearen udalerrian egindako mezularitza-zerbitzurako, honako sail hauek definitzen dira:

**a) Mezularitza bizikletan egitea** [zerbitzu hori duten herrietan].

[zehaztu bizikletaz zerbitzatzeko eremua](e)tik [zehaztu bizikletaz zerbitzatzeko eremua](e)ra bitarteko eremuan, zerbitzua bizikletaz egingo da, salbu bidalketaren pisua 5 kg-tik edo 25 litrotik gorakoa bada, edo 40x30x25cm-tik gorako tamaina badu, edo eguraldiak eragozten badu; kasu horretan, zerbitzua furgonetan egingo da.

**b) Mezularitza motozikletan egitea**

[Bizikleta-zerbitzua definitzen bada] Herriguneko gainerako eremuetan, zerbitzua motozikletan egingo da.

[Bizikleta-zerbitzurik ez badago] Herriguneko bidalketak egiteko, zerbitzua motozikletan egingo da.

Eguraldiak eragozten badu, zerbitzua furgonetan egin ahal izango da.

**c) Mezularitza furgonetan egitea**

Bidalketaren tamaina (bolumenari edo pisuari dagokionez) handiegia bada, edo distantzia handiegia bada zerbitzua bizikletaz edo motozikletaz eskaintzeko, edo eguraldiak eragozten badu, zerbitzua furgonetan egingo da.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako batean jaso beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

#### Kontratu EGIKARITZEA (nahitaez bete beharrekoak)

#### ENBALATZEA

2. Mezularitza egiteko, enpresa lizitatzailleek paketeak eta gutun-azalak kutxa berrerabilgarrietan, birziklagarrietan eta/edo bigarren mailako materialetan jaso eta entregatu beharko dituzte. Horretarako, zerbitzuaren memorian aurkeztu beharko da zer kutxa mota erabiliko diren.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako batean jaso beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

## ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

### HIRI-MEZULARITZA (gehienez 10 puntu lor daitezke)

#### Mezularitza bizikletan egitea

3. [Mezularitza bizikletan egiteko zerbitzua definitzen bada] Enpresa lizitatzailleek bizikleta-zerbitzua egiteko eremua zabaltzea baloratuko da, baita zerbitzu horretarako kargaren mugak handitzea ere, pisu, bolumen eta tamaina espezifikoei dagokienez (gehienez 2 puntu).

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako batean jaso beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

#### Mezularitza motozikletan egitea

4. [Administrazioak mezulariak izateko behar adina bidalketa baditu] Enpresak zerbitzurako aurreikusitako motozikletek ingurumen-eragin txikia izatea baloratuko da, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren (DGT) sailkapenak ezartzen duenaren arabera. Hona:

- 0 sailkapena duten motozikletak % 100 izatea, 4 puntu.
- 0 sailkapena duten motozikletak % 51 eta % 100 artean izatea, 3 puntu.
- Eco sailkapena duten motozikletak % 51 eta % 100 artean izatea, 2 puntu.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako batean jaso beharko da: 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

#### Mezularitza furgonetan egitea

5. Enpresak zerbitzurako aurreikusitako furgonetek ingurumen-eragin txikia izatea baloratuko da, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren (DGT) sailkapenak ezartzen duenaren arabera. Hona:

- 0 sailkapena duten furgonetak % 100 izatea, 4 puntu.
- 0 sailkapena duten furgonetak % 51 eta % 100 artean izatea, 3 puntu.
- Eco sailkapena duten furgonetak % 51 eta % 100 artean izatea, 2 puntu.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako batean jaso beharko da: 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

### HIRIARTEKO MEZULARITZA (gehienez 5 puntu lor daitezke)

6. Enpresak EAEn zerbitzu horretarako duen ibilgailu-flotaren (furgoneta txikiak eta handiak) CO<sub>2</sub> emisioak txikiak izatea baloratuko da (gehienez 5 puntu).

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako batean jaso beharko da: 3 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

## EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Lizitatzaillearen memoria

2. DGTaren bereizgarria

3. 1. eranskina

Enpresak zerbitzurako erabiliko duen ibilgailuen flota [zerbitzurako ibilgailu jakin batzuk esleitzen badira] / udalerrian edo EAEn eskuragarri dagoen flota [zerbitzurako ibilgailu jakin batzuk esleitu ezin badira]: Behar adina lerro gehitu.

Marka	Modeloa	Matrikula	Erregai-mota	CO <sub>2</sub> (g/km)	EURO estandarra

Erregaiak: 1. Gasolina, 2. Diesela, 3. PGL, 4. GNP, 5. Hibridoa, 6. Elektrikoa, 7. Hidrogenoa...  
Autoen eta furgoneten kasuan, CO<sub>2</sub>-ari eta EUROri buruzko informazioa ibilgailuaren informazio/fitxa teknikoan aurki daiteke.



## INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Bulego-altzariak erostean ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Zura jatorri iraunkorreak izatea.
- Formaldehido-isuriak mugatzea tauletan.
- Plastikoaren kantitatea eta ezaugarriak murriztea: konposizioa, jatorria eta balio-bizitza bukatzea.
- Balio-bizitza bukatzean birziklatzeko erraza izatea.

## INGURUMEN-IRIZPIDEAK

### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da bulegoko altzariak eta ekipamendua erostea, bai eta erositako altzariak instalatzea ere.

Lan-osasuna eta -segurtasuna zaintzeko eta ingurumen-eraginak murrizteko, altzariak ergonomiari, erosotasunari, segurtasunari eta ingurumen-kalitateari buruzko gutxieneko irizpide batzuk bermatu beharko dituzte. Gainera, hornidura-zerbitzua ere ingurumena errespetatuz egin beharko da.

### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

#### EGURREZKO, PARTIKULAZKO ETA ZUNTZEZKO TAULAK

1. Giza osasunerako kaltegarriak direnez, tauletako formaldehido-emisioak mugatuta egon beharko dira, eta gutxienez E2 motako taulak erabili beharko dira, EN 13.986:2006 arauaren edo baliokidearen arabera.

*Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hau aurkeztu beharko da: 6 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

#### PLASTIKOZKO MATERIALAK

2. > 100 gr-ko plastiko zati guztiak markatuta egon beharko dira, ISO 11469 edo baliokidearen arabera, eta ezin izango dute birziklatzea zailtzen duen estaldurarik izan.

*Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hau aurkeztu beharko da: 7 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

### EGIKARITZE-IRIZPIDEAK (nahitaez bete beharrekoak)

#### GARRAIO-ENBALAJE BERRERABILGARRI, BIRZIKLAGARRI ETA/EDO BIRZIKLATUA

3. Hornitutako produktuek enbalajea badute, birziklagarriak eta/edo material birziklatuzkoak izan beharko dira.

*Egiaztapena: Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 11 eta 12 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

### ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

#### PRODUKTUAREN MATERIALEN INGURUMEN-HOBEKUNTZAK (gehienez 15 puntu lor daitezke):

##### Egurrezko, partikulazko eta zuntzezko taulak

4. Baloratuko da modu jasangarrian kudeatutako ustategietatik eratorritako (FSC, PEFC edo baliokidea) eta/edo birziklatutako zur ziurtatuko zuntz edo partikulen ehuneko handiak erabiltzea (gehienez 3 puntu).

*Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 4, 5, 7 eta 9 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

5. E1 motako taulen ehuneko handiak erabiltzea baloratuko da, EN 13.986:2002 arauaren edo baliokidearen arabera (gehienez 2 puntu).

*Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hau aurkeztu beharko da: 6 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

#### Plastikozko materialak

6. Plastiko kloraturik ez egotea baloratuko da (2 puntu).

*Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 7 eta 9 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

7. Produktua fabrikatzean material birziklatuzko ehuneko handiak erabiltzea baloratuko da (gehienez 3 puntu).

*Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 7, 9, 13, 14 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

#### Ekodiseinua

8. Eskaintako produktuak ingurumenaren aldetik hobetutakoak izatea baloratuko da (ahalik eta ehuneko handiena). Ekodiseinu-prozesuen eta/edo bizi-zikloaren ikuspegia aintzat hartzen duten hobekuntzen bidez hobetutako produktuak izango dira, egiazko informaziotik abiatuta (gehienez 5 puntu).

*Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1, 2, 3, 10, 13, 14 hartutako neurriak eta lortutako hobekuntzak adierazita (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

### EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Aingeru Urdina etiketa		8. Segurtasun-fitxa	
2. Europar Batasuneko etiketa ekologikoa		9. Deskribapen teknikoa	
3. Beltxarga Nordikoa etiketa		10. UNE-EN ISO 14006 eranskina	
4. FSC		11. Fitxa teknikoa	
5. PEFC		12. Lizitazailearen adierazpena	
6. Laborategiko testa		13. Produktua ingurumenaren aldetik hobetzeko bizi-zikloaren analisiaren (BZA) txostena, UNE-EN-ISO 14040 eta 14044 arauen arabera	
7. Enpresaren/fabrikatzailearen adierazpena		14. Produktuaren ingurumen-adierazpena	



## OBRA ZIBILEKO PROIEKTUA

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Obra zibileko proiektuetan ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Ahalik eta material gutxien erabiltzea, berrerabiltzeari edo diseinuari esker.
- Bigarren mailako materialak erabiltzea.
- Obra gauzatzean hondakinak kudeatzea.
- Ura kudeatzea.
- Zaharberritze ekologikoa.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da [idatzi proiektuaren izena] obren proiektua idazteko zerbitzua eta/edo zuzendaritza fakultatiboa kontratatzea, ingurumen-irizpideak kontuan hartuta eta azpiegituraren bizi-ziklo osoan zehar ingurumen-eragina gutxitzen dela bermatuta.

### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

#### IN SITU ERABILGARRI DAUDEN MATERIALAK BERRERABILTzea

1. Proiektuan, nahitaezkoa izango da in situ eskuragarri dauden materialen berrerabilpena lehenestea (lurzoruak, oinarriak, zelaiguneak, betegarriak, etab.) kanpotik datozen materialak erabili orde. Honako aukera hauek erabili ahal izango dira:
  - Eskuragarri dagoen materiala hobetzea, aprobetxatzeko. Horretarako, honako teknika hauek erabili ahal izango dira: etapaka eraikitzea, aurrekarga eta/edo drain bertikalak, trinkoketa dinamikoa, legarrezko zutabeak, piloteak, zementuarekin edo karearekin egonkortzea edo formulazio birziklatua duten beste produktu batzuekin egonkortzea, betegarri arinak eraikitzea, etab.
  - Materialak in situ fabrikatzea, lehendik zeuden materialak berrerabilita. Adibidez, material hezea edo eduki organikoa duen materiala berrerabiltzea, lurzoruaren goiko geruzetan kalitatezko konpostarekin batera berrerabiltzeko; urbanizazio-obretan induskatutako hondakinak prozesatzea, zangak betetzeko edo hodiak sostengatzeko oheetarako aprobetxatzeko, etab.
  - Lehendik zeuden zimenduak, lauzak, zoladurak edo egiturak berrerabiltzea, obra berrirako aprobetxatzeko.

Proiektuan, zer material erabilgarri berrerabiliko diren, zer ehunekotan eta zer teknika erabiliko diren adierazi beharko da. Hori egiten ez bada, zergatia justifikatu beharko da.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

#### MATERIAL GUTXIAGO ERABILTzea

2. Ahalik eta material gutxien erabiltzea ahalbidetuko duten diseinu-konponbideak aztertuko dira proiektuan. Konponbide horiek, besteak beste, honako hauek izan daitezke:
  - Diseinatzean, topografia eta lurzoru motak kontuan hartzea, lur-mugimenduak murrizteko eta paisaia-eragina arintzeko.
  - Konponbide industrialak txertatzea, hala nola, gabioiak, geosareak, geomintzak, geogelaxkak etab. horrela geruzak meheagoak izateko, ezpondak indartzeko, lubetak eta lurzoruak material gutxiagorekin egonkortzeko, etab.
  - Zangak egitea saihestea, horretarako dauden teknikak erabilita. Teknika horiek instalazio berrietan edo lurpeko instalazioen mantentze-lanetan erabiltzea, hala nola: hodiak tinkatzea edo bultzatzea, mikrotunelak eraikitzea, norabide-zulaketa, eta abar.

Proiektuak xede horretarako hartutako konponbideen zerrenda jaso beharko du, aurreztutako material kopuruaren balioespena barne.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

### BIGARREN MAILAKO MATERIALA

3. Proiektuak barne hartu behar du azpiproduktuen, bigarren mailako lehengaien, material birziklatuen edo berrerabiltzeko prestaketa-prozesuetatik eratorritako materialen ehunekoaren kalkulua, obraren guztizkoaren gainean, lhobek "Eraikuntzan material birziklatuak erabiltzeko gidaliburuan" eta erantsitako kalkulu-tresnan<sup>20</sup> (Material birziklatuen kalkulagailua) garatutako metodologiaren arabera.

Proiektuak, obraren guztizkoaren gainean (pisua), azpiproduktuak, bigarren mailako lehengaiak, material birziklatuak edo berrerabiltzeko prestaketa-prozesuetatik datozen materialak % 40<sup>21</sup> izango direla bermatu behar du.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

### HONDAKINEN KUDEAKETA

4. Hondakinak kudeatzeko azterketak LER-170904 kodearen % 5eko sortzeko gehieneko helburua jasoko du, eta gutxienez % 85eko balorizazio-helburua, azterketa horretan aurreikusitako hondakinen guztizkoari dagokionez.

Hondakinak kudeatzeko azterketa egiteko, honako aplikazio hau erabiliko da: EEH AURREZTEN: EGRak, PGRak eta IFGak idazten eta berrikusten laguntzeko tresna.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

### DRAINATZE JASANGARRIKO SISTEMAK

5. Proiektuak lurraren baldintza hidrologikoak, uholde-arriskua eta plubiometria aztertuko ditu, jariatzeen kudeaketa-kate egokia ezartzeko eta drainatze jasangarriko sistemen erabilera maximizatzen.

Hainbat ekintza aztertu beharko dira, eta lehentasuna ura prezipitatu den tokitik ziklo naturalera ahalik eta hurbilen itzultzea izango da.

Prebentzio-sistema gisa, lurraren iragazkortasuna handitzeko neurriak zehaztu beharko dira, hala nola, lurzoruak destrinkotzea, zolatutako azalera gutxitzea, zolatutako eremuetan zoladura iragazkorak ezartzea, eta abar.

Jariatzeak tratatzeko eta kontrolatzeko sistema osagarri gisa, honako teknika hauek aplikatu ahal izango dira, aplikazio-fasearen arabera ordenatuta:

- Jatorrian infiltratzeko edo kontrolatzeko sistemak: Putzuak, zangak, iragazketa-deposituak, iragazte-arekak, etab.
- Tratamendu handiagoko sistemetaranzko garraio-sistemak (ibilbidean zehar onurak dakartzate): Drainak edo iragazte-zerrendak, biaduktuak, areka berdeak, etab.
- Tratamendu pasiboko sistemak: Erretentzio-urmaelak, hezegune artifizialak, gelditze-biltegiak, ekaitz-tangak, etab.

Hala ere, larrialdi-hustubideak ezarri beharko dira, drainatze-sistemek kudeatu ezin duten ura xurgatzeko.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

### ZAHARBERRITZE EKOLOGIKOA

6. Proiektuan, azpiegitura eraikitzearen ondorioz eragindako espazioak nola tratatu aztertu beharko da. Zaharberritze ekologikoko proposamenak sartu beharko dira proiektuan, funtsezko prozesu ekologikoak lehengoratzeko helburu izango dutenak (higadura egonkortzea eta kontrolatzea, hidrologia, mantenu-gaien zikloa eta energia atzitzea eta transferitzea).

Proposamenak obraren kokaleku eta ezaugarri zehatzetara egokituta egon beharko dira. Mota honetako neurriak hartu beharko dira kontuan:

- Lurraren iragazkortasuna ahal den neurrian handitzea. Adibidez, ahalik eta biaduktu eta drainatze gehien eraikita, areka perimetral eraginkorrek eraikita, ezponden zimurtasuna handituta edo ezpondak ez trinkotuta, etab.
- Azpiegiturak eraikitzearen ondoriozko jariatzeen interzeptazioa, kontzentrazioa eta desbideratzea ahalik eta gehien murriztea, hustutako jariatzea espazioan eta aldi baterako banatzeko.

<sup>20</sup> Gida hori, prestatzen ari den beste honengatik ordeztuko da: "Euskadiko ingurumen administrazioaren legea betetzeko gida: Bigarren mailako materialak sartzeko obraren kontratazioan". Prest dagoenean, eskuragarri egongo da lhoberen webguneko argitalpenen atalean, [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus).

<sup>21</sup> Bigarren mailako materialen % 40aren aplikazio-atalaseak Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 84. artikuluan du lege-ainguraketa.

- 
- Landare-estalkia berreskuratzea bermatuko duten neurriak abian jartzea.
  - Animalia-populazioen gaineko eraginak txikiagotzera bideratutako neurriak kontuan hartzea.
  - Espezie aloktono inbaditzaileak hedatzea edo sartzea saihesteko neurriak hartzea.
  - Interes geologikoko puntuak eta lekuak identifikatzea eta horien balioa nabarmentzeko proposamenak egitea.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

## ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

### PROIEKTUAREN INGURUMEN-KALITATEA (gehienez 15 puntu lor daitezke)

7. Deskribapen-memoriaren kalitatea baloratuko da. Bertan, proiektua egitean honako alderdi hauek nola landuko diren jaso beharko da [proiektua egiteko garrantzitsuak diren ingurumen-alderdiak sartu]:

- In situ erabilgarri dagoen materiala berrerabiltzea (gehienez 3 puntu)
- Material gutxiago erabiltzea (gehienez 3 puntu)
- Ingurumen-eragin txikiagoa duten materialak erabiltzea (gehienez 2 puntu)
- Hondakinen kudeaketa (gehienez 2 puntu)
- Uraren kudeaketa (gehienez 3 puntu)
- Zaharberritze ekologikoa (gehienez 2 puntu)

Epigrafe bakoitzerako, proposamenaren deskribapen-maila, espero den ingurumen-eraginaren murrizketa eta gauzatzeko bideragarritasuna baloratuko dira.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

## EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Lizitatzaillearen memoria
-

## OBRA ZIBILA GAUZATZEA

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Obra zibila gauzatzean ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Obraren bigarren mailako materialak erabiltzea.
- Obrek irauten duten bitartean ingurumen-eragina murriztea.
- Eraikuntza-obrek irauten duten bitartean, hondakin ahalik eta gutxien sortzeko neurriak aplikatzea lehenetsiko da (in situ berrerabiltzearen bidez), bai eta sortzen diren hondakinak gaika behar bezala kudeatzea ere.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da [txertatu proiektuaren izena] obrak gauzatzeko zerbitzua kontratatzea, egikaritze-proiektuaren arabera eta ingurumena babesteko neurriak aplikatuta, bai materialetan eta produktuetan, bai obren kudeaketan.

#### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

##### BIGARREN MAILAKO MATERIALA

1. Obra gauzatzean, bermatu behar da obraren guztizkoaren ganean (pisua) erabiltzen diren azpi produktuak, bigarren mailako lehengaiak, material birziklatuak edo berrerabiltzeko prestaketa-prozesuetatik datozen materialak % 40<sup>22</sup> direla.

Obra bukatzean, enpresa esleipendunak bigarren mailako materialaren benetako ehunekoa kalkulatu behar du obraren guztizkoaren ganean, lhobek "Eraikuntzan material birziklatuak erabiltzeko gidaliburuan" eta erantsitako kalkulu-tresnan<sup>23</sup> (Material birziklatuen kalkulagailua) garatutako metodologiaren arabera. Kalkulu hori zuzendaritza fakultatiboak berrikusi beharko du obraren egikaritze-fasean.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

##### INGURUMENA KUDEATZEKO PLANA

2. Enpresa lizitatzailleek Ingurumena Kudeatzeko Planaren aurrerapena erantsiko dute; bertan, lizitatzailleak obrak gauzatzearen ondoriozko eraginak murrizteko ezarriko dituen neurriak zehaztuko ditu. Planak, gutxienez, honako elementu hauek jasoko ditu [proiektuaren arabeko elementuak sartu]:
  - Uraren, energiaren eta erregaien kontrola eta zentzuzko kontsumoa.
  - Atmosferara ahalik eta emisio gutxien egitea (ibilgailuen eta makinen hautsa, CO<sub>2</sub> eta bestelako errekontza-gasak, usainak, argi-kutsadura, etab.).
  - Zaratak murriztea (indusketa-lanetan, makina astunak erabiltzen diren lanetan, zamalanetan, obrako makina txikiak erabiltzen diren lanetan, etab.).
  - Inguruan eta obraren beraren baitan ahalik eta eragozpen gutxien egoteko hartutako mugikortasun-neurriak.
  - Lurzoria, landaredia, fauna, paisaia eta lotutako ingurumen-zerbitzuak babestea.
  - Gainazaleko, lurpeko eta itsasoko uren kalitatea babestea [obra-motaren arabera aukeratu].
  - Langileen prestakuntza espezifikoa, arestian aipatutako alderdiak kontuan izan ditzaten.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

<sup>22</sup> Bigarren mailako materialen % 40aren aplikazio-atalaseak Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 84. artikuluan du lege-ainguraketa.

<sup>23</sup> Gida hori, prestatzen ari den beste honengatik ordeztuko da: "Euskadiko ingurumen administrazioaren legea betetzeko gida: Bigarren mailako materialak sartzeko obraren kontratazioan". Prest dagoenean, eskuragarri egongo da lherberen webguneko argitalpenen atalean, www.ihobe.eus.

---

### HONDAKINAK KUDEATZEKO PLANA

3. Hondakinak kudeatzeko planak justifikatu egin beharko du hondakinak kudeatzeko azterketako aurrekontuari begira egindako edozein aldaketa, eta bertan ezarritako helburuak eta neurriak betetzen direla bermatu beharko du.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

---

### EGIKARITZE-IRIZPIDEAK

#### OBRA EGIKARITZEAREN JARRAIPENA

4. Obra egikaritzen den bitartean, obren ingurumen-jarraipena eta -kontrola egin beharko da. Horretarako, obrei buruzko ingurumen-eguneroko bat izan beharko da, eta aldizkako txostenak egin. Bertan, obraren martxari buruzko informazioa jasoko da, ingurumenari dagokionez.

#### ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENEN HONDAKINEN KUDEAKETA

5. Eraikuntza- eta eraispene-hondakinen (EEH) kudeaketak hondakinak kudeatzeko azterketan ezarritako helburuak eta neurriak betetzen direla bermatu beharko du.

---

### ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

#### IN SITU ERABILGARRI DAGOEN MATERIALA BERRERABILTZEA (gehienez 8 puntu lor daitezke)

6. Enpresa lizitatzailleek in situ erabilgarri dagoen materiala berrerabiltzeko egindako proposamenak baloratuko dira, proiektuan ezarritakoez gain. Proposamenetan honako hauek sartu ahal izango dira:

- Eskuragarri dagoen materiala hobetzea, aprobetxatzeko. Horretarako, honako teknika hauek erabili ahal izango dira: etapaka eraikitzea, aurrekarga eta/edo drain bertikalak, trinkoketa dinamikoa, legarrezko zutabeak, piloteak, zementuarekin, karearekin edo hondakinekin egonkortzea, betegarri arinak eraikitzea, etab.
- Materialak in situ fabrikatzea, lehendik zeuden materialak berrerabilita. Adibidez, material hezea edo eduki organikoa duen materiala berrerabiltzea, lurzoruaren goiko geruzetan kalitatezko konpostarekin batera berrerabiltzeko; asfaltoa in situ edo zentral batean birziklatzea; urbanizazio-obretan induskatutako hondakinak prozesatzea, zangak betetzeko edo hodiak sostengatzeko oheetarako aprobetxatzeko, etab.
- Lehendik zeuden zimenduak, lauzak, zoladurak edo egiturak berrerabiltzea, obra berrirako aprobetxatzeko.

Proposamenean, zer material erabilgarri berrerabili diren, zer ehunekotan eta zer teknika erabili diren adierazi beharko da.

Proposamenaren balorazioan, material berrerabili kopuru handiena (kilogramotan) duen proposamenak lortuko du puntuaziorik altuena. Gainerako enpresa lizitatzailleek puntu proportzionalak lortuko dituzte, proposatutako material berrerabili kopuruaren (kg) arabera.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

#### MATERIAL GUTXIAGO ERABILTZEA (gehienez 7 puntu lor daitezke)

7. Enpresa lizitatzailleek obran material gutxiago erabiltzea ahalbidetuko duten konponbideak txertatzeko egindako ingurumen-hobekuntzako proposamenak baloratuko dira. Proposamenetan honako hauek sartu ahal izango dira:

- Konponbide industrialak txertatzea, hala nola, gabioiak, geosareak, geomintzak, geogelaxkak etab. horrela geruzak meheagoak izateko, ezpondak indartzeko, lubetak eta lurzoruak material gutxiagorekin egonkortzeko, etab.
- Zangak egitea saihestea, horretarako dauden teknikak erabilita. Teknika horiek instalazio berrietan edo lurpeko instalazioen mantentze-lanetan erabiltzea, hala nola: hodiak tinkatzea edo bultzatzea, mikrotunelak eraikitzea, norabide-zulaketa, eta abar.

Proposamenak konponbideen zerrenda jaso beharko du, aurreztutako material kopuruaren balioespena barne.

---

---

Proposamenaren balorazioan, material gehien (kilogramotan) aurreztea dakarren proposamenak lortuko du puntuaziorik altuena. Gainerako enpresa lizitatuak puntu proportzionalak lortuko dituzte, proposatutako aurreztutako material kopuruaren (kg) arabera.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

## EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Lizitatuaren memoria
-



## OBRA HIDRAULIKOKO PROIEKTUA

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Obra hidraulikoko proiektuetan ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Bigarren mailako materialak sartzea.
- Uraren kudeaketa, hidrologia aztertzea uholde-arriskuak txikitzeko.
- Ingurune biotikoa babestea.
- Obra gauzatzen den bitartean hondakinen kudeaketa planifikatzea.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da [proiektuaren izena gehitu] proiektu hidraulikoaren [proiektua idazteko eta/edo zuzendaritza fakultatiboko] zerbitzua kontratatzea.

Proiektua idazteko, eraikuntza jasangarriko printzipioak, klima-aldaketa eta ekodiseinuko eta ekonomia zirkularreko estrategiak hartuko dira kontuan, ingurumena eta osasuna gehien errespetatzen dituzten produktuak, materialak eta eraikuntza-sistemak erabiltzeko, bai eta obraren bizi-ziklo osoko eraginak murrizteko konponbideak erabiltzeko (diseinutik hasi eta egikaritzera, balio-bizitza, eta, azkenik, berritzea edo deseraikitzea) eta jatorrizko egoera babesteko duten ingurumen-zerbitzuak babesteko ere.

#### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

##### PROZESU EKOLOGIKOAK ETA INGURUMEN-ZERBITZUAK BABESTEA

1. Proiektuan, azpiegitura eraikitzearen ondorioz eragindako espazioak nola tratatu aztertu beharko da. Zaharberitze ekologikoko proposamenak sartu beharko dira proiektuan, funtsezko prozesu ekologikoak eta ingurumen-zerbitzuak lehengoratzeko helburu izango dutenak (higadura egonkortzea eta kontrolatzea, hidrologia, mantenuari zikloa eta energia atzitzea eta transferitzea).

##### HIDROLOGIA - AZALEKO UREN KALITATEA ETA ERREGIMEN HIDROLOGIKOA

2. Proiektuak uholde-arriskuaren mugaketa eta definizioa jaso beharko ditu, aroko uholde-arriskuak prebenitzeko planetan garatutako azterketa hidrológicoen eta uholdeen aurreikuspenaren informazioa kontuan hartuta. Era berean, obra hidraulikoak klima-aldaketaren ondorioz ekarriko dituen mehatxuei, kalteberatasunari, esposizioari eta arriskuei buruzko azterketa egin beharko da, 2050 eta 2100 eszenatokiei dagokienez. Azterketan oinarrituta, eta indarrean dagoen araudiaren arabera, dagozkion errepikatze-denborako segurtasun-mailak bermatu beharko dira.
3. [Hiri-inguruetako ibilgu-tarteetan egiten diren esku-hartzeetan] Uholdeak babesteko obretan esku hartzeko proiektuan, helburua ibai-lurralde berreskuratzea izango da; horregatik, errepikatze-denbora bermatzeko behar diren lubeten atzeraemangunea nagusituko da beti [Q100, herri bakoitzaren egoeraren arabera izango da].
4. [Hirikoak EZ diren inguruetako ibilgu-tarteetan egiten diren esku-hartzeetan] Ibai-leheneratzeetan, ibai-ibilguen jarraitutasuna berreskuratzea eta uholde-lautadak berreskuratzea nagusituko da; beraz, oztopo antropikoak iragazkortu beharko dira eta jarraitutasun hidraulikoa sortu beharko da ibilguaren beraren eta/edo lautada alubialen artean.
5. [Itsasertzeko edo itsas ingurune esku-hartzeetan] Itsas/ibai-inguruetako obrek edo leheneratzeek klima-aldaketaren ondoriozko arriskuaren azterketa hartuko dute kontuan, igotako itsas mailaren segurtasunari dagokionez, 2050 eta 2100 eszenatokiei begira. Horri dagokionez, kontzentrazio-ibilbide adierazgarriak hartuko dira kontuan [RCP4.5 / RCP8.5].

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

**BIGARREN MAILAKO MATERIALA**

6. Proiektuak barne hartu behar du azpiproduktuen, bigarren mailako lehengaien, material birziklatuen edo berrerabiltzeko prestaketa-prozesuetatik eratorritako materialen ehunekoaren kalkulua, obraren guztizkoaren gainean, lhobek "Eraikuntzan material birziklatuak erabiltzeko gidaliburuan" eta erantsitako kalkulu-tresnan<sup>24</sup> (Material birziklatuen kalkulagailua) garatutako metodologiaren arabera.
7. Proiektuak, obraren guztizkoaren gainean (pisua), azpiproduktuak, bigarren mailako lehengaiak, material birziklatuak edo berrerabiltzeko prestaketa-prozesuetatik datozen materialak % 40<sup>25</sup> izango direla bermatu behar du.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

**HONDAKINEN KUDEAKETA**

8. Hondakinak kudeatzeko azterketak LER-170904 kodearen % 5eko sortzeko gehieneko helburua jasoko du, eta gutxienez % 85eko balorizazio-helburua, azterketa horretan aurreikusitako hondakinen guztizkoari dagokionez.

Hondakinak kudeatzeko azterketa egiteko, honako aplikazio hau erabiliko da: EEH AURREZTEN: EGRak, PGRak eta IFGak idazten eta berrikusten laguntzeko tresna.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

**ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK****NATURAN OINARRITUTAKO KONPONBIDEAK (gehienez 7 puntu lor daitezke)**

9. Esku-hartzeko eremua naturan oinarritutako konponbideak erabiltzearen bidez egokitzea eta jatorrizko egoerara itzultzea baloratuko da.

Puntu bat emango da "Irtenbide Naturalak Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan klima-aldaketara egokitze" dokumentuan jasotako konponbide bakoitzeko. Dokumentua IHOBek argitaratu zuen eta webgunean dago eskuragarri. Elementu ez-naturaletan oinarritutako leheneratze-konponbideak ez dira puntuatuko (obra zibileko azpiegiturak, zolatutako eremu iragazgaitzak, etab.).

Talde eskaintzaileak esku-hartzerako ezarritako leheneratze- eta egokitzapen-konponbideen deskribapena jaso beharko du.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

**INGURUNE BIOTIKOA BABESTEIA (gehienez 8 puntu lor daitezke)**

10. Lehendik zegoen ingurune biotikoa babesteko eta hobetzeko neurriak proposatuz gero, gehienez [8 puntu] emango dira, honako hurrenkera honetan:

- Espezieak eta habitatak babesteko, berreskuratzeko edo kontserbatzeko neurriak, igarobide ekologikoen eta ekotonoen kontzeptuak barne.
- Animaliak igarotzeko pasabideak, hesiak eta ihes-egiturak diseinatzea.
- Espezieak berriro sarraraztea.

Espezieak eta habitatak babesteko, berreskuratzeko edo kontserbatzeko hartutako neurri bakoitzeko 2 puntu emango dira; animaliak igarotzeko pasabideak, hesiak eta ihes-egiturak diseinatzeako hartutako konponbide bakoitzeko puntu bat; eta espezieak berriro sarraraztea errazteko hartutako konponbide bakoitzeko 0,5 puntu.

Eskaintza egiten duen taldeak lehendik dagoen ingurune biotikoa babesteko eta hobetzeko hartutako neurrien deskribapen-zerrenda jaso beharko du.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

**EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA**

1. Lizitatzaillearen memoria

<sup>24</sup> Gida hori, prestatzen ari den beste honengatik ordeztuko da: "Euskadiko ingurumen administrazioaren legea betetzeko gida: Bigarren mailako materialak sartzeko obraren kontratazioan". Prest dagoenean, eskuragarri egongo da Ihoberen webguneko argitalpenen atalean, [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus).

<sup>25</sup> Bigarren mailako materialen % 40aren aplikazio-atalaseak Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 84. artikuluan du lege-ainguraketa.

## OBRA HIDRAULIKOA GAUZATZEA

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Obra hidraulikoa gauzatzean ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Obran bigarren mailako materialak erabiltzea.
- Obrek irauten duten bitartean ingurumen-eragina murriztea.
- Obra gauzatzean hondakinak kudeatzea.
- Drainatze naturala mantentzeko neurriak txertatzea.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da [gehitu proiektuaren izena] obrak gauzatzeko zerbitzua kontratatzea, betiere eraikuntza jasagarriko printzipioak, klima-aldaketa eta ekodiseinuko eta ekonomia zirkularreko estrategiak kontuan hartuta, ingurumena eta osasuna gehien errespetatzen dituzten produktuak, materialak eta eraikuntza-sistemak erabiltzeko, bai eta obraren bizi-ziklo osoko eraginak murrizteko konponbideak erabiltzeko ere (diseinutik hasi eta egikaritzera, balio-bizitza, eta, azkenik, berritzea edo deseraikitzea).

#### ZHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

##### BIGARREN MAILAKO MATERIALA

1. Obra gauzatzean, bermatu behar da obraren guztizkoaren gainean (pisua) erabiltzen diren azpi produktuak, bigarren mailako lehengaiak, material birziklatuak edo berrerabiltzeko prestaketa-prozesuetatik datozen materialak % 40<sup>26</sup> direla.

Obra bukatzean, enpresa esleipendunak bigarren mailako materialaren benetako ehunekoa kalkulatu behar du obraren guztizkoaren gainean, lhobek "Eraikuntzan material birziklatuak erabiltzeko gidaliburuan" eta erantsitako kalkulu-tresnan<sup>27</sup> (Material birziklatuen kalkulagailua) garatutako metodologiaren arabera. Kalkulu hori zuzendaritza fakultatiboak berrikusi beharko du obraren egikaritze-fasean.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

##### INGURUMENA KUDEATZEKO PLANA

2. Enpresa lizitatuak Ingurumena Kudeatzeko Planaren aurrerapena erantsiko dute; bertan, lizitatuak obrak gauzatzearen ondoriozko eraginak murrizteko ezarriko dituen neurriak zehaztuko ditu. Planak, gutxienez, honako elementu hauek jasoko ditu:

- Uraren, energiaren eta erregaien kontrola eta zentzuzko kontsumoa.
- Atmosferara ahalik eta emisio gutxien egitea (ibilgailuen eta makinen hautsa, CO<sub>2</sub> eta bestelako errektuntza-gasak, usainak, argi-kutsadura, etab.).
- Zaratak murriztea (indusketa-lanetan, makina astunak erabiltzen diren lanetan, zamalanetan, obrako makina txikiak erabiltzen diren lanetan, etab.).
- Lurzorua, landaredia, fauna, paisaia eta lotutako ingurumen-zerbitzuak babestea.
- Inguruan eta obraren beraren baitan ahalik eta eragozpen gutxien egoteko hartutako mugikortasun-neurriak.
- Langileen prestakuntza espezifikoak, arestian aipatutako alderdiak kontuan izan ditzaten.

*Egiaztapena: 2. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

<sup>26</sup> Bigarren mailako materialen % 40aren aplikazio-atalaseak Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 84. artikuluan du lege-ainguraketa.

<sup>27</sup> Gida hori, prestatzen ari den beste honengatik ordeztuko da: "Euskadiko ingurumen administrazioaren legea betetzeko gida: Bigarren mailako materialak sartzeko obraren kontratazioan". Prest dagoenean, eskuragarri egongo da lheren webguneko argitalpenen atalean, [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus).

### HONDAKINAK KUDEATZEKO PLANA

3. Hondakinak kudeatzeko planak justifikatu egin beharko du hondakinak kudeatzeko azterketako aurrekontuari begira egindako edozein aldaketa, eta bertan ezarritako helburuak eta neurriak betetzen direla bermatu beharko du.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

### ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

#### DRAINATZE NATURALAK

4. Drainatze naturalak mantentzeko eta urak tratatzeko hartutako neurriak baloratuko dira. Gehienez ere [5 puntu] emango dira, drainatze naturaletik mantendutako uraren ehunekoaren arabera. Gehieneko puntuazioa ehuneko handienari emango zaio, eta gainerako eskaintzek dagokion puntuazio proportzionala jasoko dute.

$$\text{Puntuazioa} = \frac{\% \text{Lizitatzailerak}}{\% \text{max}} \times 5$$

Ekipo lizitatzailerak drainatze naturalak mantentzeko eta urak tratatzeko egindako proposamena deskribatu beharko du, eta ehunekoa kalkulatu beharko du.

*Egiaztapena: 1. abala aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

### EGIKARITZE-IRIZPIDEAK

#### OBRA EGIKARITZEAREN JARRAIPENA

5. Obra egikaritzen den bitartean, obraren ingurumen-jarraipena eta -kontrola egin beharko da. Horretarako, obrari buruzko ingurumen-eguneroko bat izan beharko da, eta aldizkako txostenak egin. Bertan, obraren martxari buruzko informazioa jasoko da, ingurumenari dagokionez.

#### HIDROLOGIA - AZALEKO UREN KALITATEA ETA ERREGIMEN HIDROLOGIKOA

6. Obrek irauten duten bitartean, enpresa esleipendunak honako neurri hauek hartu beharko ditu kontuan, azaleko uren kalitatea bermatzeko:
- Obrako makineria garbitzea eta mantentzea berezko dekantazio-sistemetako eremu espezifikoetan eta aurreikusietan. Ibilguetatik edo drainatze-sistemetatik sartzeko bideak saihestea, aldi baterako pasabideak kenduta eta ibilgu-desbideratzeak debekatuta.
  - Obretan sortutako edo atzemandako hondakin-urak behar bezala tratatzea.
  - Obrek sortutako sedimentuak arrastatzea mugatzeko aldi baterako dekantazio-putzuak edo arekak egitea.
  - Uretan egingo diren jarduketetarako sedimentuzko erretentzio-hesiak eta erretentzio-hesi flotagarriak egitea.
  - Obra-materialak edo -hondakinak uholde-eremuetatik kanpo metatzea.
  - Ibilguak eta ibaiertzak ahalik eta maila natural/jatorrizkoenera lehengoratztea.
  - Ibilgua egungo ibilguaren bi aldeetan dauden materialen antzekoekin betetzea.
  - Erregimen hidrológicoari dagokionez, obrak aldi baterako mugatuko dira, ibai-ibilguen erregimen hidrológicoaren egutegiaren arabera. Obrako instalazio osagarrietarako salbuespen-eremuen berri emango da, aurrez definitutako uholde-eremuen arabera, eta ur-goraldiek eragin ditzaketen larrialdien aurrean prebentzio-neurriak hartzeko plan bat ezarriko da.

#### HIDROLOGIA - ITSAS UREN KALITATEA (hala dagokionean)

7. Obrek irauten duten bitartean, enpresa esleipendunak honako jardunbide egoki hauek hartu beharko ditu kontuan, itsas uren kalitatea bermatzeko:
- Makinek eta langileek portualdera iristeko egiten duten bidea balizatzea eta kontrolatzea.
  - Obrarekin zerikusia duten isuriengatiko larrialdi plana eta neurri zuzentzaileak idaztea. Obrak eta itsas inguruneak elkarri eragiten badiote, erretentzio-hesi (sedimentuzkoa/flotagarria) bidezko sistema egokia ezartzea.
  - Portuko urak garbitzeko instalazioak ezartzea (drainatze-sarea, dekantazio-tanga, etab.) eta atzemandako hondakin-urak arazteko tratamendua ezartzea.
  - Uren kalitate-helburuak betetzeko neurriak definitzea (nazioarteko araudia, estatuko edo eskualdeko hitzarmenak, etab.)
  - Eguraldia/itsasoa dela-eta jarduketak mugatzea (dragatzeak/isurketak).

**INGURUNE BIOTIKOA**

8. Obrek irauten duten bitartean, enpresa esleipendunak honako jardunbide egoki hauek hartu beharko ditu kontuan:
- Teknikari aditu batek egitea obren eta ingurune biotikoaren gaineko eraginaren jarraipena.
  - Urak uhertzea saihesteko pantaila geotestilak erabiltzea.
  - Jarduerak eta salbuespen-eremuak mugatzea.

**ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENENKO HONDAKINEN KUDEAKETA**

9. Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen (EEH) kudeaketak hondakinak kudeatzeko azterketan ezarritako helburuak betetzen direla bermatu beharko du.

**EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA**

1. Lizitatzaillearen memoria
-



## PAPERA

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Papera kontratatzean ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Produktuko zuntzen jatorria.
- Substantzia/produktu kutsatzaile gutxiago erabiltzea, bai produktuan, bai papera fabrikatzeko prozesuan.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da ingurumen-eragin txikiko bulego-papera [eta/edo beste paper-material batzuk] eskuratzea.

### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

1. Paperak, gutxienez, ziurtatutako baso-ustiapen jasangarrietatik (FSC, PEFC edo baliokidea) datozen zur-zuntzen eta/edo birziklatutako zuntzen % 70eko edukia izan behar du.  
*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1, 2, 3, 4 eta 5 (ikus egiaztapen-dokumentazioa)
2. Papera zuritzeko prozesuan ez da oinarritzko klororik erabili behar (Elementary Chlorine free, ECF). Papera egiteko zuritze-prozesuan klororik erabili ez bada (Totally Chlorine Free (TCF)), papera onartuko da.  
*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1, 2, 3 eta 7 (ikus egiaztapen-dokumentazioa)

### ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

#### KONPOSATU KIMIKOAK (gehienez 15 puntu lor daitezke)

3. I. motako ekoetiketaren batean (Aingeru Urdina, Europar Batasuneko etiketa ekologikoa, Beltxarga Nordikoa edo baliokidea) definitutako isuriei eta konposatu kimikoei buruzko ingurumen-irizpideak betetzen direla baloratuko da.  
*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1, 2 eta 3 (ikus egiaztapen-dokumentazioa)

### EGIKARITZE-IRIZPIDEAK (nahitaez bete beharrekoak)

#### GARRAIO-ENBALAJE BERRERABILGARRI, BIRZIKLAGARRI ETA/EDO BIRZIKLATUA

4. Produktuak hornitzeko, kaxa berrerabilgarriak (enpresa esleipendunak hurrengo entregan berreskuratuko ditu), birziklagarriak eta/edo material birziklatuak erabiliko dira.  
*Egiaztapena:* Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 7 eta 8 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

## EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Aingeru Urdina etiketa		5. PEFC	
2. Europar Batasuneko etiketa ekologikoa		6. Laborategi-testa	
3. Beltxarga Nordikoa etiketa		7. Fitxa teknikoa	
4. FSC		8. Adierazpena	

## BULEGO-MATERIALA

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Bulego-materiala kontratatzean ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Paper birziklatua duten, klororik ez duten edo baso-ustiapen jasangarrietako egur/zuntzak dituzten bulego-materialak lehenestea.
- Erabili eta botatzeko materialik ez erabiltzea, produktu kargagarriak eta ontzirik gabek lehenetsita.
- I. motako ekoetiketaren batean definitutako substantzia kaltegarrien erabilera txikitzeko irizpideak kontuan hartzea.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da ingurumena gehiago zaintzen duen bulego-materiala erostea.

#### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

##### BULEGO-MATERIALA

[Oharra: kategoria honetan askotariko produktuak sartzen direnez, irizpide orokorrak ezarri dira; dena den, erosketaren xedea tipologiaren baten arabera zehazten bada (papera, arkatzak, guraizeak...), irizpide espezifikoagoak kontsulta daitezke lhoberen webgunean].

1. Paperezko eta kartoizko materialek birziklatutako zuntzen % 70 izan behar dute gutxienez.  
*Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 2, 3 eta 4<sup>a</sup> (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*
2. Plastikozko materialak polipropilenoazkoak (PP), polietilenoazkoak (PE) edo zelulosa/kautxu naturaleko azetatozkoak [borragomen kasuan] izan behar dira.  
*Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 2 eta 3 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

### ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

#### PRODUKTUEN INGURUMEN-HOBEKUNTZAK (gehienez 15 puntu lor daitezke)

3. Proposatutako bulego-materialek ingurumen-portaera hobea izatea baloratuko da. Horretarako, enpresa lizitatuak produktu zerrendan zehaztu beharko dute proposatutako produktuek zein irizpide betetzen dituzten, jarraian dagoen taulan adierazitako kodeen arabera.  
*Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzeko taulan jasotako abaletako bat aurkeztu beharko da (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

**28** Europar Batasuneko etiketa ekologikoak eta Beltxarga Nordikoak zuntz birziklatua edo baso-ustiategi jasangarrietatik datorren zuntza soilik % 70 dela ziurtatzen dute. Hala ere, horrek ez du esan nahi ziurtagiri horiek dituzten paperek ez dutela baldintza betetzen; hala ere, erabilera justifikatzeko, Europako etiketa ekologikoaz edo beltxarga nordikoaz gain, enpresak aitorten bat erantsi beharko du (adibidez, fitxa teknikoak); bertan, berariaz adierazi beharko du paperaren kontsumo osteko zuntz birziklatuaren ehuneko zehatza. FSC eta PEFC ziurtagirien kasuetan hainbat modalitate ere badituzte, kasuan kasuko papereko zuntzaren tipologiaren arabera. Zuntzak baso-ustiapen jasangarrietatik edo kontsumitu aurreko edo osteko zuntz birziklatuetatik eratorritakoak dira. Modalitate horietako batzuek irizpide honi erantzun diezaioke. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, "FSC eta PEFC ziurtagiriak eta kontratazio publikoan duten erabilera." dokumentua kontsulta daiteke.

Irizpidea	Kodea	Egiaztapena
Material birziklatuaren edukia (adierazi ehuneko zehatza)	1	2, 3, 4 <sup>1</sup>
Material bakarreko produktuak	2	1, 3
Klororik ez duten paperezko edo kartoizko produktuak (TCF)	3	2, 3, 4
Produktu kargagarriak eta horien birkargak	4	1, 2, 3
Uretako disolbatzaileak dituzten produktuak	5	2, 3
Disolbatzailerik ez duten produktu lehorrak	6	1, 2, 3
Lakatu gabeko zurezko arkatzak	7	2, 3
Kudeaketa jasangarriko baso-ustiapenetatik, birziklatutako materialetatik eta/edo egur kontrolatutik eratorritako egurra	8	7, 8
I. motako ekoetiketaren batean definitutako substantzia kaltegarrien irizpideak jarraituz ekoiztako produktuak (hala nola Aingeru Urdina, Beltxarga Nordikoa edo baliokidea)	9	4, 5, 6
Ontzi individualik erabili gabe eta/edo 5 produktu edo gehiagoko kutxetan hornitutako produktuak	10	1, 3

1 Europar Batasuneko etiketa ekologikoak eta Beltxarga Nordikoak zuntz birziklatua edo baso-ustiategi jasangarrietatik datorren zuntza soilik % 70 dela ziurtatzen dute. Hala ere, horrek ez du esan nahi ziurtagiri horiek dituzten paperek ez dutela baldintza betetzen; hala ere, erabilera justifikatzeko, Europako etiketa ekologikoaz edo beltxarga nordikoaz gain, enpresak aitorten bat erantsi beharko du (adibidez, fitxa teknikoa); bertan, berariaz adierazi beharko du paperaren kontsumo osteko zuntz birziklatuaren ehuneko zehatza. FSC eta PEFC ziurtagiriaren kasuetan hainbat modalitate ere badituzte, kasuan kasuko papereko zuntzaren tipologiaren arabera. Zuntzak baso-ustiapen jasangarrietatik edo kontsumitu aurreko edo osteko zuntz birziklatuetatik eratorritakoak dira. Modalitate horietako batzuek irizpide honi erantzun diezaiokete. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, "FSC eta PEFC ziurtagiriak eta kontratazio publikoan duten erabilera." dokumentua kontsulta daiteke.

## EGIKARITZE-IRIZPIDEAK (nahitaez bete beharrekoak)

### GARRAIO-ENBALAJE BERRERABILGARRI, BIRZIKLAGARRI ETA/EDO BIRZIKLATUA

4. Produktuak hornitzeko, kaxa berrerabilgarriak (enpresa esleipendunak hurrengo entregan berreskuratuko ditu), birziklagarriak eta/edo material birziklatuak erabiliko dira.

*Egiaztapena:* Honako abal hau aurkeztu beharko da: 1 eta 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

### EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Lizitatzaileren adierazpena eta deskribapena	5. Beltxarga Nordikoa	
2. Produktuaren fitxa teknikoa edo deskribatzailea	6. Europar Batasuneko etiketa ekologikoa	
3. Fabrikatzailearen adierazpena	7. FSC	
4. Aingeru Urdina	8. PEFC	



## INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Argitalpenak editatzeko/inprimatzeko zerbitzuen kontratazioan ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Papera baso-ustiapen jasangarrietatik datozen zuntzez eginda egon beharko da, edo zuntz birziklatuak izan beharko ditu.
- Metal astunik gabeko tintak, gehigarriak eta bestelako materialak erabiliko dira.
- Argitalpenak ez dira plastifikatuko.

## INGURUMEN-IRIZPIDEAK

### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da inprimatutako materiala/argitalpenak diseinatzeko, inprimatzeko eta banatzeko zerbitzuak kontratatzea, ingurumena gehiago zainduta, bai azken produktuei dagokienez, bai zerbitzua emateari dagokienez.

## ZHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

### DISEINUA

1. Formatua eta gramajea 1. eranskinean jasotako parametroetara egokitzea gomendatzen da, betiere azken produktuaren kalitatea eta irakurgarritasuna ziurtatuta. Horri esker, ahalik eta gehien aprobetxa daitezke orriak eta, beraz, erabilitako papera.

*Egiaztapena: Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

2. Ez da tinta metalizaturik edo fosforeszenterik erabiliko.

*Egiaztapena: Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

3. Dokumentua diseinatzean eta inprimatzean ahalik eta tinta gutxien erabiliko da, betiere azken produktuaren kalitatea bermatuz.

*Egiaztapena: Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

### PAPERA

Honako bi aukera hauetako edozein erabil daiteke papera aukeratzeko irizpide gisa:

4. **1. AUKERA:** Paperaren % 90, gutxienez, zuntz birziklatuekin egongo da egina.

*Egiaztapena: Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 3, 4, 7<sup>29</sup> (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

5. **2. AUKERA:** Paperaren % 70 gutxienez baso-ustiapen jasangarrietatik eratorritako zuntzez edo kontsumitu aurreko edo osteko zuntz birziklatuez eginda egongo da, FSC, PEFC edo estandar baliokidearen arabera<sup>30</sup>.

*Egiaztapena: Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 3, 4, 7, 8, 9, 10, 11 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

<sup>29</sup> Europar Batasuneko etiketa ekologikoak eta Beltxarga Nordikoak zuntz birziklatua edo baso-ustiategi jasangarrietatik datorren zuntza soilik % 70 dela ziurtatzen dute. Hala ere, horrek ez du esan nahi ziurtagiri horiek dituzten paperek ez dutela baldintza betetzen; hala ere, erabilera justifikatzeko, Europako etiketa ekologikoaz edo beltxarga nordikoaz gain, enpresak aitorten bat erantsi beharko du (adibidez, fitxa teknikoak); bertan, berariaz adierazi beharko du paperaren kontsumo osteko zuntz birziklatuaren ehuneko zehatza.

<sup>30</sup> FSC eta PEFC ziurtagiriek hainbat modalitate dituzte, kasuan kasuko papereko zuntzaren tipologiaren arabera. Zuntzak baso-ustiapen jasangarrietatik edo kontsumitu aurreko edo osteko zuntz birziklatuetatik eratorritakoak dira. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, "FSC eta PEFC ziurtagiriak eta kontratazio publikoan duten erabilera." dokumentua kontsulta daiteke.

**INPRIMAKETA DIGITALA**

6. Tonerrek (edo tintek, tinta bidezko inprimaketa digitala bada) ez dute metal astunik izango (kadmioa, merkurioa, beruna eta VI kromoa), eta ez dute 100 ppm-ko edo gehiagoko kontzentrazioa gaindituko.

*Egiaztapena: Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 3, 5 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

**OFFSET INPRIMAKETA**

7. Offset inprimaketa-sistema computer-to-plate (CTP) motakoa izan behar da.

*Egiaztapena: Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

8. Tintek, disoluzio hezetzailerako gehigarriek eta agente garbitzaileek ez dute metal astunik izango (kadmioa, merkurioa, beruna eta VI kromoa), eta ez dute 100 ppm-ko edo gehiagoko kantitatea gaindituko.

*Egiaztapena: Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 3, 5 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

**INPRIMAKETA ONDOREN**

9. Argitalpena ez da plastifikatuko.

*Egiaztapena: Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

10. (Babestu behar bada) Azala ur-oinarriko bernizarekin babestuko da.

*Egiaztapena: Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 4 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

**EGIKARITZE-IRIZPIDEAK (nahitaez bete beharrekoak)**

11. Enpresa esleipendunak bermatu beharko du kontratua gauzatzean sortutako hondakinak behar bezala kudeatzen eta gaika biltzen direla, batez ere paper-hondarrak eta hondakin bereziak (tinten hondarrak eta ontziak, toner-kartutxoak, agente garbitzaileak, garbiketa-trapu zikinak, etab.).

Kontratuaren hasieran, enpresarekin lan egingo duten kudeatzaile baimenduek hondakin bereziak onartuko dituztela adierazten duten orriak aurkeztuko dira, edo hondakin-mota hori behar bezala kudeatzen dela ziurtatzen duen beste edozein agiri.

12. Produktuak hornitzeko, kaxa berrerabilgarriak (enpresa esleipendunak hurrengo entregan berreskuratuko ditu), birziklagarriak eta/edo material birziklatuak erabiliko dira.

*Egiaztapena: Honako abal hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 2 eta 3 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

**ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK****PAPERA (gehienez 5 puntu lor daitezke)**

13. (2. aukera aukeratu bada) Baso-ustiapen jasangarrietatik edo kontsumitu aurreko edo osteko zuntz birziklatuetatik datozen zuntzen ehuneko handiak baloratuko dira (gehienez 3 puntu).

*Egiaztapena: Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 7, 8+4, 9+4, 10+4 edo 11+4 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

14. (1. aukera zein 2. aukera aukeratu bada) Papera fabrikatzeko prozesuak I. motako ekoetiketaren batean edo baliokideren batean definitutako isuriei eta konposatu kimikoei buruzko ingurumen-irizpideak betetzea baloratuko da (gehienez 2 puntu).

*Egiaztapena: Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 7, 8, 9 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

**INPRIMAKETA DIGITALA (gehienez 5 puntu lor daitezke)**

15. Inprimaketa digitalerako erabil daitezkeen ekipoen ehunekoa baloratuko da, betiere Energy Star ziurtagirian edo baliokidean zehaztutako energia-eraginkortasuneko baldintzak betetzen badituzte.

*Egiaztapena: Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 2. eta 6. eranskinak (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

**OFFSET INPRIMAKETA (gehienez 5 puntu lor daitezke)**

16. Tintak, disoluzio heztzailerako gehigarriak eta agente garbitzaileak honako arrisku-esaldi hauekin sailkatuta ez egotea baloratuko da: H300, H301, H310, H311, H330, H331, H340, H341, H350, H350i, H351, H360F, H360D, H360FD, H360Fd, H360Df, H361f, H361d, H361fd, H362, H370, H371, H372, H373, H400, H410, H411, H412, H413, EUH059, EUH029, EUH031, EUH032 eta EUH070.

*Egiaztapena: Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 5 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

**EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA**

1. Diseinuaren deskribapena	7. Aingeru Urdina	
2. Inprimaketa-enpresaren deskribapena	8. Beltxarga Nordikoa	
3. Fabrikatzailearen adierazpena	9. Europar Batasuneko etiketa ekologikoa	
4. Fitxa teknikoa	10. FSC	
5. Segurtasun-fitxa	11. PEFC	
6. Energy Star		

**I. ERANSKINA**

Material mota	Formatuak	Gramajea
Diptikoak eta triptikoak	30 x 21 20 x 21 (80 - 105 irekia)	90-125g
Informazio-buletinak	Din A4 Din A5	80-100g
Aldizkariak eta eskuorriak	Din A4 15 x 21,5 15,5 x 21,5 17 x 24 (itxia)	Barnekoa: 80-110 g Kanpokoak: 150-180 g Gehienez 16 orrialde gramaje bakarreko (90-125 g) edo paper bolumena 45-60 g
Katalogoak eta liburuak	Din A4 15 x 21,5 15,5 x 21,5 20 x 21 21 x 21 17 x 24 (itxia)	Barnekoa: 80-100 g Kanpokoak: 170-300 g (normalean 250 g), azalik gabe
Gidak, posterrak eta kartelak	Din A3, 2, 1 25 x 50 50 x 70 70 x 100	100-150 g (normalean 125 g)
Artxibategi pertsonalizatuak	27 x 32, bizkarraren zabalera aldatzen da	Barnekoa: 75-100 g Orri bereizleak: 200-250 g



## LANEKO ARROPA ETA OINETAKOAK

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Ehunak erostean ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Formaldehido libre eta partzialki hidrolizagarrien eta beste produktu kimiko batzuen kantitatea.
- Ehun-gaien kalitatea eta iraunkortasuna.
- Zuntzen edo elementu birziklatuen edukia.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da laneko arropa eta oinetakoak erostea, ingurumen-kalitateko gutxieneko irizpide batzuk kontuan hartuta.

### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

#### ARROPAKO FORMALDEHIDOAK

1. Azken ehunean dauden formaldehido libre eta partzialki hidrolizagarrien kantitatea ez da 75 ppm-tik gorakoa izango larruazala zuzenean ukitzen duten jantzietan, ezta 150 ppm-tik gorakoa ere gainerako produktuen kasuan, EN ISO 14184-1 aruari edo baliokideari jarraiki.

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1, 2, 3, 4 eta 5 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

#### ARROPAREN KALITATEA ETA IRAUNKORTASUNA

2. Produktuak ez ditu tamainaren ondorengo aldaketa-balioak gaudituko garbitzen eta lehortzen direnean, ISO 5077 arauan edo baliokidean ezarritako metodoen arabera:

- Kotoia eta kotoi-nahasketa: 3 % 3
- Artile-nahasketa: 3 % 2
- Zuntz sintetikoak: 3 % 2
- Puntu-lanak: 3 % 6

Irizpide hori ez zaie aplikatuko etiketan modu argian «lehorreko garbiketa» edo antzekoa duten produktuei.

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1, 2, 3 eta 5 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

3. Produktuak koloreen sendotasun-balio hauek izan beharko ditu, ISO 105 arauan edo baliokidean ezarritako metodoen arabera:

- garbitzean: 3-4 maila
- transpirazioan: 3-4 maila
- igurtzi hezean: 2-3 maila

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1, 2, 3 eta 5 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

#### OINETAKOEN KALITATEA ETA IRAUNKORTASUNA

4. Honako balio hauek errespetatuko dira, CEN TC 309 WI 065-4.9 metodoen edo baliokideen arabera:

- Oinbularrak urradurekiko gogorrak izatea:  
larrua:  $\geq 60$   
beste material batzuk:  $\geq 40$
- Zolak urradurekiko gogorrak izatea (urradurekiko batez besteko indarra):  
U-rentzat  $\geq 0,9 \text{ g/cm}^3$ : 6  
U-rentzat  $< 0,9 \text{ g/cm}^3$ : 4
- Oinetakoen barruko aldearen kolorea ez aldatzea (gris-eskala 50 aldiz garbitu ondoren)  $\geq 2/3$

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1 eta 3 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

## ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

### LANEKO ARROPA ETA OINETAKOAK (gehienez 15 puntu lor daitezke)

5. Baloratuko da azken ehunean dauden formaldehido libre eta partzialki hidrolizagarrien kantitatea ez izatea 20 ppm-tik gorakoa larruzala zuzenean ukitzen duten produktuetan, ezta 75 ppm-tik gorakoa ere gainerako produktuen kasuan, EN ISO 14184-1 aruari edo baliokideari jarraiki (gehienez 5 puntu).

*Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1, 2, 3 eta 5 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

6. Baloratuko da produktuak azken produktuan substantzia kaltegarriak edo arriskutsuak egoteari buruzko baldintzak betetzea, I. motako etiketaren batean definitutakoak, hala nola Europar Batasuneko etiketa ekologikoan edo baliokidean, edo I. erdi-motako etiketaren batean, hala nola Oekotex Standard 100 edo baliokidean (gehienez 5 puntu).

*Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1, 2, 3 eta 4, 7 eta 8ekin batera (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

7. Eskainitako produktuan zuntzen edo elementu birziklatuen edukiaren (pisua) ehunekoa baloratuko da. Horri dagokionez, zuntz birziklatutzat hartuko dira ekoizpen-hondarretatik, ehungintzako eta jantzigintzako industrien ebakinetatik edo kontsumitu osteko hondakinetatik eratorritakoak (gehienez 5 puntu).

*Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 6, 7 eta 8 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

## EGIKARITZE-IRIZPIDEAK (nahitaez bete beharrekoak)

### GARRAIO-ENBALAJE BERRERABILGARRI, BIRZIKLAGARRI ETA/EDO BIRZIKLATUA

8. Produktuak hornitzeko, kaxa berrerabilgarriak (enpresa esleipendunak hurrengo entregan berreskuratuko ditu), birziklagarriak eta/edo material birziklatuak erabiliko dira.

*Egiaztapena: Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 7 eta 8 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

## EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Europar Batasuneko etiketa ekologikoa		5. Laborategiko testa edo txostena
2. Aingeru Urdina		6. Azalpena
3. Beltxarga Nordikoa		7. Fitxa teknikoa
4. Estandarrak		8. Fabrikatzailearen adierazpena

## BARRUKO EHUNAK

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Barruko ehunak kontratatzean ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Formaldehido libre eta partzialki hidrolizagarrien eta beste produktu kimiko batzuen kantitatea.
- Ehun-gaiien kalitatea eta iraunkortasuna.
- Zuntzen edo elementu birziklatuen edukia.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da ehun-gaiak erostea, ingurumen-kalitateko gutxieneko irizpide batzuk kontuan hartuta.

#### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

##### ARROPAKO FORMALDEHIDOAK

1. Azken ehunean dauden formaldehido libre eta partzialki hidrolizagarrien kantitatea ez da 75 ppm-tik gorakoa izango larruzala zuzenean ukitzen duten produktuetan, ezta 300 ppm-tik gorakoa ere gainerako produktuen kasuan, EN ISO 14184-1 aruari edo baliokideari jarraiki.

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1, 2, 3, 4 eta 5 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

##### ARROPAREN KALITATEA ETA IRAUNKORTASUNA

2. Produktuak ez ditu tamainaren ondorengo aldaketa-balioak gaindituko garbitzen eta lehortzen direnean, ISO 5077 arauan edo baliokidean ezarritako metodoen arabera:
  - 3 % 2 (irazkia eta bilbea) gortinetarako ehunen eta tapizeriaren kasuan (garbigarriak eta zorrotik ateratzen direnak).
  - 3 % 6 (irazkia eta bilbea) gainerako ehun-produktuen kasuan.
  - 3 % 6 (luzera eta zabalera) puntu-lanen kasuan.
  - 3 % 6 (luzera eta zabalera) kizkur-ehunen kasuan.

Irizpide hori ez zaie aplikatuko etiketan modu argian «lehorreko garbiketa» edo antzekoa duten produktuei.

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1, 2, 3 eta 5 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

3. Produktuak koloreen sendotasun-balio hauek izan beharko ditu, ISO 105 arauan edo baliokidean ezarritako metodoen arabera:
  - garbitzean: 3-4 maila
  - transpirazioan: 3-4 maila
  - argian: 4-5 maila (gortinak eta tapizeria)
  - igurtzi hezean: 2-3 maila
  - igurtzi lehorrean: 3-4 maila

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1, 2, 3 eta 5 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

## ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

### BARNE-ARROPA (gehienez 15 puntu lor daitezke)

4. Baloratuko da azken ehunean dauden formaldehido libre eta partzialki hidrolizagarrien kantitatea ez izatea 20 ppm-tik gorakoa larruazala zuzenean ukitzen duten produktuetan, ezta 75 ppm-tik gorakoa ere gainerako produktuen kasuan, EN ISO 14184-1 arauari edo baliokideari jarraiki (gehienez 5 puntu).

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1, 2, 3 eta 5 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

5. Baloratuko da eskainitako produktuaren zuntz-edukiaren pisuak (ehunekotan) azken produktuan substantzia kaltegarriak edo arriskutsuak egoteari buruzko baldintzak betetzea, I. motako etiketaren batean definitutakoak, hala nola Europar Batasuneko etiketa ekologikoan edo baliokidean, edo I. erdi-motako etiketaren batean, hala nola Oekotex Standard 100 edo baliokidean (gehienez 5 puntu).

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1, 2, 3 eta 4, 7, eta 8ekin batera (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

6. Eskainitako produktuan zuntzen edo elementu birziklatuen edukiaren (pisua) ehunekoa baloratuko da. Horri dagokionez, zuntz birziklatutzat hartuko dira ekoizpen-hondarretatik, ehungintzako eta jantzigintzako industrien ebakinetatik edo kontsumitu osteko hondakinetatik eratorritakoak (gehienez 5 puntu).

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 6, 7 eta 8 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

## EGIKARITZE-IRIZPIDEAK (nahitaez bete beharrekoak)

### GARRAIO-ENBALAJE BERRERABILGARRI, BIRZIKLAGARRI ETA/EDO BIRZIKLATUA

7. Produktuak hornitzeko, kaxa berrerabilgarriak (enpresa esleipendunak hurrengo entregan berreskuratuko ditu), birziklagarriak eta/edo material birziklatuak erabiliko dira.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 7 eta 8 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

## EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Europar Batasuneko etiketa ekologikoa		5. Laborategiko testa edo txostena
2. Aingeru Urdina		6. Azalpena
3. Beltxarga Nordikoa		7. Fitxa teknikoa
4. Estandarrak		8. Fabrikatzailearen adierazpena



## AUTOBUSAK EROSTEA

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Autobusak erostean ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Ordezko erregaiak erabiltzea.
- Energia-kontsumoa.

### ALDEZ AURREKO HAUSNARKETAK ETA ERABAKIAK

Autobus bat erosteari begira, aldez aurretik zer erregai mota erabiliko duen erabaki behar da. Erregai hori jarraian zehazten direnetako bat izan beharko da, hau da, ordezko erregai gisa sailkatutakoa:

- elektrizitatea
- hidrogenoa
- bioerregaiak
- gas naturala edo petrolio-gas likidotua (PGL)

Erregai bat edo bestea erabiltzeko erabakia honako hauen mende egon daiteke, besteak beste: garraio-premiak (autonomia, tamaina...), merkatuko eskuragarritasuna edo erregai lortzeko eskuragarritasun operatiboa.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Erregai gisa [elektrizitatea, hidrogenoa, bioerregaiak, gas naturala edo petrolio-gas likidotua (PGL) (horietako bat aukeratu)] erabiltzen duten autobusak erostea, pertsonen garraio publikoak sortutako eragin negatiboak murrizteko ingurumen-irizpideak kontuan hartuta.

### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

#### ORDEZKO ERREGAIAK ERABILTZEA

1. Ibilgailuak [elektrizitatea, hidrogenoa, bioerregaiak, gas naturala edo petrolio-gas likidotua (PGL)] erabili behar du.

*Egiaztapena:* Eskaintzan sartutako ibilgailu bakoitzerako honako abal hau aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

#### ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

#### ENERGIA-KONTSUMOAK (gehienez 15 puntu lor daitezke)

2. [Ibilgailu elektrikoaren kasuan] Baloratuko da ibilgailuek energia-kontsumo txikia izatea (kWh/km-ko), UITPren E-SORT estandarren edo baliokideen arabera.

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako autobus bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

3. [Bioerregaien edo PGLren kasuan] Baloratuko da ibilgailuek energia-kontsumo txikia izatea (l/km-ko), UITPren SORT estandarren edo baliokideen arabera.

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako autobus bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

4. [Gas naturalaren kasuan] Baloratuko da ibilgailuek energia-kontsumo txikia izatea (kg/km-ko), UITPren SORT estandarren edo baliokideen arabera.

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako autobus bakoitzerako honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

## EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Ibilgailuaren dokumentazio teknikoa
2. SORT edo E-SORT estandarren araberako testa

## AUTOBUS-ZERBITZUA

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Autobusak erostean ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Ordezko erregaiak erabiltzea.
- Emisio kutsatzaileak.
- Gidatze eraginkorra.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da pertsonak autobusez garraiatzeko zerbitzua kontratatzea, ibilgailuei, gidariei eta eguneroko kudeaketari dagokienez ingurumen-irizpideak kontuan hartuta, kontratuak irauten duen bitartean eragin negatiboak txikitzeko.

#### KAUDIMEN PROFESIONALA

#### INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE EGOKIAK

1. Enpresa lizitatzailerik frogatu behar dute kontratua gauzatzean ingurumen-kudeaketako jardunbide egokiak sistematikoki aplikatzea berma dezaketela. Honako hauen bidez egiazta dezakete: ingurumen-kudeaketarako sistema ziurtatu baten bidez (EMAS, ISO 14001 edo baliokidearen arabera), kontratatu nahi den garraio publikoko zerbitzura zuzendutako instalazio eta jardueretarako (garajeak, tailerrak, auto-garbiguneak); edo, bestela, zerbitzuari lotutako ingurumen-araudia betetzen dela eta ingurumena zaintzen dela bermatzen duten lan-prozedura eta -praktiken bidez.

*Egiaztapena: Enpresak IKSren (Ingurumen Kudeaketarako Sistema) ziurtagiria erantsi beharko du, edo, bestela, kaudimena ebaluatzen aipatutako prozedurak.*

#### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

#### ORDEZKO ERREGAIK ERABILTZEA

2. Zerbitzua ordezko erregaiak erabilia eman beharko da, hau da: elektrizitatea, hidrogenoa, bioerregaiak, gas naturala edo petrolio-gas likidotua (PGL). Lizentziak eta baimenak berrituz gero, zehaztapen horrek kontratuak irauten duen bitartean berritzen den flotaren % 100ari eragingo dio.

*Egiaztapena: Eskaintzan sartutako ibilgailu bakoitzerako honako abal hau aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

#### EGIKARITZE-IRIZPIDEAK (nahitaez bete beharrekoak)

#### GIDATZE ERAGINKORRARI BURUZKO PRESTAKUNTZA

3. Kontratuari atxikitako langile guztiek gidatze eraginkorrari buruzko prestakuntza izan beharko dute, eta azken 2 urteetan jasotakoa izan beharko da. Kontratua esleitzeko unean baldintza hori betetzen ez bada, gidari guztiek prestakuntza jaso beharko dute kontratua hasi eta lehenengo hiru hilabeteetan.

## ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

### EMISIO KUTSATZAILEAK (gehienez 15 puntu lor daitezke)

4. Baloratuko da atxikitako ibilgailu/ibilgailuek emisio kutsatzaile eta CO<sub>2</sub> emisio gutxi izatea, honako mota hauekoak izateagatik:
- 1. mota: ibilgailu elektriko bateriaduna (IEB), hidrogenozkoa: 15 puntu.
  - 2. mota: ordezeko erregaiekin (PGL, GNK, GNL) konbinatutako ibilgailu elektriko hibrido entxufagarriak: 7 puntu.
  - 3. mota: gas natural konprimatuaren (GNK), gas natural likidotuaren (GNL) edo petrolio-gas likidotuaren (PGL) bidez propultsatuak: 0 puntu.

Flotaren guztizko puntuazioa kalkulatzeko kategoria bakoitzeko ibilgailuen ehunekoak hartuko dira kontuan:

Puntuak= 1. motako ibilgailuen %\* 15+ 2. motako ibilgailuen %\* 7 3. motako ibilgailuen %\* 0

*Egiaztapena: Proposamenean sartutako autobus bakoitzerako honako abal haueko bat aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa)*

## EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

1. Ibilgailuaren dokumentazio teknikoa



## IBILGAILUAK EROSTEA

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Ibilgailu arinak erostean ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Ordezko erregaiak erabiltzea.
- Kontsumo txikiagoa.

### ALDEZ AURREKO HAUSNARKETAK ETA ERABAKIAK

Ibilgailu bat erosteari begira, aldez aurretik zer erregai mota erabiliko duen erabaki behar da. Erregai hori jarraian zehazten direnetako bat izan beharko da, hau da, ordezko erregai gisa sailkatutakoa:

- elektrizitatea
- hidrogenoa
- bioerregaiak
- gas naturala edo petrolio-gas likidotua (PGL)

Erregai bat edo bestea erabiltzeko erabakia honako hauen mende egon daiteke, besteak beste: garraio-premiak (autonomia, tamaina...), merkatuko eskuragarritasuna edo erregai lortzeko eskuragarritasun operatiboa.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da erregai gisa [elektrizitatea, hidrogenoa, bioerregaiak, gas naturala edo petrolio-gas likidotua (PGL) (bat aukeratu)] erabiltzen duten ibilgailuak erostea, ingurumen-eragin negatibo txikiagoa sortzen duten ekipamendu eta ezaugarriekin.

### IBILGAILUAK EROSTeko ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

#### ORDEZKO ERREGAIK ERABILTZEA

1. Ibilgailuak [elektrizitatea, hidrogenoa, bioerregaiak, gas naturala edo petrolio-gas likidotua (PGL)] erabili behar du.

*Egiaztapena:* Eskaintzan sartutako ibilgailu bakoitzerako honako abal hau aurkeztu beharko da: 1, 2 eta 3 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

#### EKIPAMENDUA

2. Ibilgailuak energia-kontsumoaren bistaratzaile edo display bat izan behar du, ibilgailua gidatzearen araberakoa.

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hau aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

### IBILGAILUAK EROSTeko ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

#### [Ibilgailu elektrikoa]

#### ENERGIA-KONTSUMO TXIKIAGOA (gehienez 7 puntu lor daitezke)

3. Baloratuko da ibilgailuak energia-kontsumo txikia izatea (kWh/100 km), WLTP homologazio-testaren arabera kalkulatuta.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

**AUTONOMIA HANDIAGOA (gehienez 7 puntu lor daitezke)**

4. Autonomia handiagoa (kilometrotan) baloratuko da, WLTP ibilgailuen homologazio-testaren arabera kalkulatuta.

*Egiaztapena: Honako abal hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

[Bioerregai bidezko ibilgailua, GN, PGL]

**CO<sub>2</sub> EMISIOAK (gehienez 15 puntu lor daitezke)**

5. CO<sub>2</sub> emisioen mailak (g/km) ahalik eta txikienak izatea baloratuko da, WLTP ibilgailuen homologazio-testaren arabera.

*Egiaztapena: Honako abal hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

**EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA**

1. Ibilgailuaren fitxa teknikoa, modeloaren adostasun-ziurtagiria

2. Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren bereizgarria (DGT)



## IBILGAILUEN ALOKAIRUA

### INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Ibilgailu arinak erostean ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Ordezko erregaiak erabiltzea.
- Kontsumo txikiagoa.

### ALDEZ AURREKO HAUSNARKETAK ETA ERABAKIAK

Ibilgailuak alokatzeko kontratuari begira, aldez aurretik zer erregai mota erabiliko duten erabaki behar da. Erregai hori jarraian zehazten direnetako bat izan beharko da, hau da, ordezko erregai gisa sailkatutakoa:

- elektrizitatea
- hidrogenoa
- bioerregaiak
- gas naturala edo petrolio-gas likidotua (PGL)

Erregai bat edo bestea erabiltzeko erabakia honako hauen mende egon daiteke, besteak beste: garraio-premiak (autonomia, tamaina...), merkatuko eskuragarritasuna edo erregai lortzeko eskuragarritasun operatiboa.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da ibilgailuak alokairuan kontratatzea (renting/leasing). Ibilgailu horiek ingurumen-eragin negatiboak murrizteko ezaugarriak izan beharko dituzte, eta mantentze-lanak ingurumena gehiago errespetatuz egin beharko dira.

### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

#### ERREGAIA

1. Ibilgailuak ordezko erregairen bat erabili behar du [elektrizitatea/hidrogenoa/bioerregaiak/gas naturala edo petrolio-gas likidotua (PGL); erakunde kontratatzaileak aukeratuko du teknologiarik egokiena, ibilgailu motaren arabera].

*Egiaztapena:* Eskaintzan sartutako ibilgailu bakoitzerako honako abal hau aurkeztu beharko da: 1 eta 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

#### EKIPAMENDUA

2. Ibilgailuak energia-kontsumoaren bistaratzaile edo display bat izan behar du, ibilgailua gidatzearen araberakoa.

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hau aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

#### MANTENTZE-ZERBITZUA (pneumatikoak)

3. Pneumatiko-aldaketetan, ibilgailuak gutxienez «B» energia-eraginkortasun motako eta gutxienez «B» zarata-klaseko pneumatikoekin hornituko dira, pneumatikoen nahitaezko etiketaren arabera (2020/740 (EB) Erregelamendua).

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako honako abal hau aurkeztu beharko da: 3 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

**IBILGAILUAK ALOKATZEKO ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK**

**[Ibilgailu elektrikoa]**

**ENERGIA-KONTSUMO TXIKIAGOA (gehienez 5 puntu lor daitezke)**

4. Baloratuko da ibilgailuak energia-kontsumo txikia izatea (kWh/100 km), WLTP homologazio-testaren arabera kalkulata.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

**AUTONOMIA HANDIAGOA (gehienez 2 puntu lor daitezke)**

5. Autonomia handiagoa (kilometrotan) baloratuko da, WLTP ibilgailuen homologazio-testaren arabera kalkulata.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

**[Bioerregai bidezko ibilgailua, GN, PGL]**

**CO<sub>2</sub> EMISIOAK (gehienez 7 puntu lor daitezke)**

6. CO<sub>2</sub> emisioen mailak (g/km) ahalik eta txikienak izatea baloratuko da, WLTP ibilgailuen homologazio-testaren arabera.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

**[Ibilgailu guztiak]**

**MANTENTZE-LANEN INGURUMEN-HOBEKUNTZAK (gehienez 7 puntu lor daitezke)**

7. Baloratuko da mantentze-lanetan erabilitako pneumatikoen A motako energia-eraginkortasunaren sailkapena izatea, pneumatikoen nahitaezko etiketaren arabera (2020/740 (EB) Erregelamendua); edo birkautxuztatuak izatea, Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoaren (CEPE/NBE) 109. erregelamenduaren arabera. Eskaintzan zer mota erabiliko den zehaztuko da (gehienez 7 puntu).

*Egiaztapena:* Proposamenean sartutako ibilgailu bakoitzerako honako abal hau aurkeztu beharko da: 3 edo 4 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

**EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA**

<p>1. Ibilgailuaren fitxa teknikoa, modeloaren adostasun-ziurtagiria eta/edo laborategiko testaren emaitzak</p>	<p>3. Ibilgailuen zerrenda, ibilgailu bakoitzaren pneumatikoen etiketa europarrarekin batera, eta kontratu osoan zehar erabiltzeko konpromiso-adierazpena.</p> 
<p>2. Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren bereizgarria (DGT)</p> 	<p>4. Ibilgailuen zerrenda, ibilgailu bakoitzaren birkautxuztatutako pneumatikoen etiketarekin batera, eta kontratu osoan zehar erabiltzeko konpromiso-adierazpena.</p>



## INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Ibilgailu astunak erostean ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Ordezko erregaiak erabiltzea.
- Energia-eraginkortasuna.

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da ibilgailu astunak erostea, ingurumen-eragin negatibo txikiagoa duten ekipamendu eta ezaugarriekin.

### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

#### IBILGAILUAK

1. Ibilgailuak [elektrizitatea/hidrogenoa/bioerregaiak/gas naturala edo petrolio-gas likidotua (PGL) erabili behar du; erakunde kontratatzaileak aukeratuko du teknologiarik egokiena, ibilgailu motaren arabera, betiere merkatuan badago autonomiari, tamainari, funtzionaltasunari eta abarri lotutako beharrak betetzen dituen mota horretako ibilgailuren bat].

*Egiaztapena:* Eskaintzan sartutako ibilgailu bakoitzerako honako abal hau aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

### ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

#### [Erregaiak erabiltzen duten ibilgailuak]

#### ENERGIA-KONTSUMO TXIKIAGOA (gehienez 7 puntu lor daitezke)

2. Baloratuko da ibilgailuak erregai-kontsumo txikiagoa izatea (l/km), 2017/2400 (EB) Erregelamenduaren<sup>31</sup> arabera kalkulatuta [ibilbide luzea/eskualde-banaketa/hiri-banaketa/udal-zerbitzua/eraikuntza] karga erabilgarri adierazgarriko.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

#### CO<sub>2</sub> EMISIOAK (gehienez 7 puntu lor daitezke)

3. CO<sub>2</sub> emisioen mailak (g/km) txikiak izatea baloratuko da, 2017/2400 (EB) Erregelamenduaren arabera kalkulatuta [ibilbide luzean/eskualde-banaketan/hiri-banaketan/udal-zerbitzuan/eraikuntzan] karga erabilgarri adierazgarriko.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

#### [Ibilgailu elektrikoak]

4. Baloratuko da ibilgailuak kontsumo txikiagoa izatea (kWh/km), 2022/1379 (EB) Erregelamenduaren<sup>32</sup> arabera kalkulatuta [ibilbide luzean/eskualde-banaketan/hiri-banaketan/udal-zerbitzuan/eraikuntzan] karga erabilgarri adierazgarriko.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

<sup>31</sup> Araudi hori da indarrean dagoena jarraibidea argitaratzerako unean. Hala ere, araudi hori nahiko azkar aldatu ohi da, eta, beraz, komeni da agiria egiteko unean berrikustea.

<sup>32</sup> Araudi hori da indarrean dagoena jarraibidea argitaratzerako unean. Hala ere, araudi hori nahiko azkar aldatu ohi da, eta, beraz, komeni da agiria egiteko unean berrikustea.

**EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA**

- |  |  |
|--|--|
| 1. Ibilgailuaren fitxa teknikoa, modeloaren adostasun-ziurtagiria eta/edo laborategiko testaren emaitzak | 2. Bezeroaren informazio-fitxategia Archivo de información del cliente |
|--|--|



## INGURUMENARI BEGIRA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Bidaiak kontratatzean ingurumen-irizpideak sartzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Ahal den neurrian, ingurumenaren aldetik hobeak diren garraiobideak erabiltzea.
- Garraio publikoarekin lotura onak dituzten ostatuak bilatzea.

[Oharra: Bidaiak kudeatzeko kontratuak esparru-hitzarmenak izan ohi direnez, garrantzitsuena da antolatzen diren bidaiak bete beharreko ingurumen-ezaugarriak lizitazioan ezartzea. Horregatik, kategoria honetarako proposatutako ingurumen-irizpideak zehaztapen teknikoak dira; ez da adjudikazio-irizpiderik proposatzen.]

### INGURUMEN-IRIZPIDEAK

#### KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da bidaiak kudeatzeko zerbitzua kontratatzea (pertsonek garraioa hainbat motatako garraiobideetan –hegazkina, trena, autobusa edo kotxea– eta ostatua), ingurumen-irizpideak kontuan hartuta.

#### ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak)

##### BIDAIA

1. Bidaia bat antolatzeko eskatzen denean, esleipendunak dauden aukerak aztertuko ditu eta aukera hobereenen berri emango dio eskaeraren arduradunari. 3 ordu baino gutxiago irauten duten hegazkin-bidaien kasuan, esleipendunak bidaia trenez egiteko aukerak aztertu eta jakinaraziko ditu.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1 edo 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

##### OSTATUA

2. Ostatua erreserbatzea eskatzen bada, esleipendunak garraio publikoarekin lotura ona duten eta/edo helmugatik edo ekitalditik hurbil dauden ostatuak bilatuko ditu. Gainera, eta halakorik egonez gero, ekitalditik hurbil dauden eta turismo-ostatuen Europako etiketa ekologikoa duten ostatuak lehenetsi beharko dira proposamenean.

*Egiaztapena:* Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1 edo 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).

##### AUTOAK

3. Autoak alokatzea eskatzen bada, esleipendunak dauden aukeren berri emango dio eskatzaileari (gutxienez bi aukera egon beharko dira). Aurkeztu beharreko dokumentazioan, honako informazio hau adieraziko da aukera bakoitzerako:

Marka, modeloa eta matrikula	Erregai-mota	Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren etiketa (DGT)	CO <sub>2</sub> emisioak (g/km)	Prezioa eta baldintzak

---

Aukeren artean beti egon beharko da ordezko erregairen bat erabiltzen duen autoren bat [elektrizitatea/hidrogenoa/bioerregaiak/gas naturala edo petrolio-gas likidotua (PGL); erakunde kontratatzaileak aukeratuko du teknologiarik egokiena, ibilgailu motaren arabera]. Ibilgailuaren emisioei buruzko informazioa fabrikatzaileak edo banatzaileak eman dezake, edo <http://coches.idae.es/> webgunean kontsulta daiteke.

*Egiaztapena: Honako abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 1 edo 2 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).*

## EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA

- |                       |  |
|-----------------------|--|
| 1. Egindako eskaintza | 2. Enpresa hornitzailearen adierazpena |
|-----------------------|--|
-





